

**Cederna-Garalurrek
negozioen erreleboa
bultzatu nahi du
ekintzailetzaren
alternatiba gisa / 7**

**Sakanako inauteri
zikloa Etxarri
Aranazko ihoteek eta
bere txatarrek mustu
zuten atzo / 14**

**Josu Etxeberriak
profesional mailan
hasi berri den
denboraldian bere tokia
bilatu nahi du / 18-19**

**Haur eskolendako
baldintza duinak
eskatzeko
mobilizatzen hasiko
dira hezitzaileak / 8**

**Sakanako kirol munduan
LGTBI+ komunitatearen
errealitatea jakiteko
inkesta zabaldu du
Mank-ek / 17**

**Victor Garcia Noguera
altsasuarra Ibizan
ikuskitzaren
munduan
murgilduta dago / 23**



Zaintzaile bila

Plazaola bide berdeko gorabeheren berri emateko
boluntarioak behar dira / 9

"Niretzat jendearen gixajo begiradak dira okerrena"

IÑAKI MUGIKA IZAGIRRE MEKANIKARIA ETA PILOTUA

MOTORRA Tierzen izandako moto-kros istripuak Iñaki Mugikaren bizitza irauli zuen. Baina horrek ez dio aurrera egiteko eta hamaika egitasmo burutzeko ilusioa kendu

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Iñaki Mugika Izagirre mekanikari eta motor pilotuarekin bildu ginen azken eguna 2020ko abendua zen. Eguberrietako oporren aurreko GUAIXEN erreportajea egin genion, Club Aventura Tuareg taldearekin 2021eko Dakarrera joateko bezperetan. Izan ere, taldeko pilotuen mekanikarietako bat izango zen Dakarrean, eta esperientzia bizitzeko irrikaz zegoen. Urte bat eta bi hilabete pasa dira ordutik eta zeharo aldatu da bere bizitza, baina Dakarra izan dugu abiapuntu.

Dakarra beste mundu bat dela eta esperientzia bizitzeko irrikaz zue dela esan zenigun zurekin egon ginen azken aldian. Espero zenuena izan zen?

Askoz ere gehiago. Club Aventura Tuareg klubeko mekanikari gisa, pilotuen motorrak puntuan jartzea zen nire lana, motorrek rallyan jarraitzea, eta aldi berean taldearen kamioia eramaten genuen, etapa batetik bestera. Esperientzia oso ona izan zen, espero zuena baino hobea, han egon eta bizi arte ez baitakizu

nola izango den. Pandemiagatik burbuilan geunden eta soilik taldeetako kideak geunden bivac-etan: pilotuak, mekanikariak, langileak... Hortaz, beti elkartzen zinen pilotu edo mekanikari ezagun eta ospetsuekin... Jendea ezagutzeko, kontaktuak egiteko eta ikasteko, askoz hobe.

TIERZ, ISTRIPUA

2021eko ilbeltzean jokatu zen Dakarra eta handik itzulita zure ohiko bizimoduarekin jarraitu zenuen, Altsasan duzun M-86 motor taillerrean lanean, eta zure zaletasunaz gozatzeko, motor irteerak egiten eta probetan parte hartzen. Horietako batean gertatu zen ezbeharra.

Bai, apirilaren 11n izan zen, igandearekin, goizeko 9:30ean gutxi gorabehera, Tierzen (Huesca) moto-kros lasterketa batean parte hartzen ari nintzela. Bezperan iritsi ginen Tierzera neska-laguna, lagunak ditudan bi anai eta laurok. Ez nuen zirkuitua ezagutzen eta ikusi nuen zirkuitu erraza zela, baina aldi berean arriskutsua. Oso azkarra zen, eta zirkuitutik kanpoko eremua oso gaizki zegoen. Harri asko

zeuden. Zirkuitutik ateraz gero, mina hartuko zenuela seguru.

Nola izan zen istripua? Zer gertatu zen?

Ez dakit. Entrenamenduan geunden. Lokatz pixka bat zegoen, baina beste munduko ezer. Salto batean pilotu guztiak barrutik sartzen ziren, baina konturatu nintzen saltoa kanpotik hartzera-koan denbora irabazten zela. Lehenengo buelta normal egin nuen, bigarren buelta kanpotik egin nuen eta hirugarren bueltan berriro ere saltoa kanpotik egin

"SALTOA HARTZERA KOAN IKUSI NUEN SEKULAKO KOLPEA HARTU BEHAR NUELA"

"OSPITALERAINO HELTZEKO HIRU ORDUK LESIOAN ERAGINA IZAN ZUTEN? EZINGO DUGU JAKIN"

behar nuenean, saltoa hartzera-koan ikusi nuen sekulako kolpea hartu behar nuela. Eta hurrengo lurrean esnatzea izan zen.

Momentu horretan zer pasa zitazun burutik?

Banekien latza izango zela. "Ostia hau sekulakoa izango da" halako zerbait etorri zitzaidan burura. Mina handia hartu behar nuela, ziur. Konortea galdu nuen. Lurrean nengoela esnatu nintzean banekien lesio larria zela, baina ez nekien non nengoen. Sorbalda erdialdean zerbait baze goela nabaritzen nuen. Guztiz okertuta nengoen: hankak alde batera eta burua bestera. Eta ezin nintzen mugitu. Hasieran bakarrik nengoen. Kaskoa nik bakarrik kendu omen nuen, baina ez naiz horretaz gogoratzen, esnatu nintzean jada kaskorik gabe bainengoen. Gero pilotu bat etorri zitzaidan laguntzera.

Ez ziren zu mugitzera ausartuko.

Banekien ezin nituela hankak mugitu, sorbalda erdialdean sentsazio arraroa nuela, hezur bat puskatua bezalakoa. Eta ezin nuen arnasa ongi hartu. Zortzi saihsak puskatuta nituen, baina momentu horretan ez nekien.

Oinaze handiak izango zenituen...

Mina bai, baina ez pentsa horrenbestera zenik. Uste dut nire gorputza kolpeetara ohituta dagoela. Gero bai, zuloatik ateratzera-koan esan zidaten ohatilara indartsu heltzeko eta nik esaten nien: "heltzeko moduan nago, ba". Anbulantzia bai, oinazeak sentitu nituen. Nik saihsak apurtu nituelako mina nuen, baina Guttman Neuroerabilitazio Ospitalean egon nintzean askok esaten zuten sorbalda hautsita ez zutela minik ez ezer sentitzen.

Istripua gertatu eta ospitaleraino eramatea asko kostatu zitzaien. Hiru ordu luze. Zergatik?

Nik uste dut gertatutakoa oso handia egin zitzaiela. Lasterketa batean hau gertatzea ez da gauza batere normala, ezta Munduko Txapelketa batean ere. Nik uste dut ez zirela ausartzen. Esan zidaten ordu eta erdi egon zirela ni zuloatik ateratzeko, eta beste

ordu eta erdi anbulantzia mugitu arte. Helikopteroa eskatu zuten eta ordu bat egon ziren zain, azkenean erantzuteko helikopteroa ez zela etortzen eurria edo haizea ari zuelako. Azkenean, hiru ordu Zaragozako ospitaleraino iritsi nintzenerako.

Ospitaleraino ailegatzeko hiru ordu luze horiek zure osasun egoeran eragina izan dute? Ala ez dugu inoiz jakingo?

Ba ez dakit. Nik ez dut horretan pentsatzen, zeren... Helikopteroa garaiz etorriko balitz, ba ez dakit. Ezingo dugu jakin.

DIAGNOSTIKOA

Zaragozako Lozano Blesa Unibertsitateko Ospitale Klinikora eraman zintuzten.

Gogoratzen dut hara ailegatu eta pelikuletan bezala gertatu zela: mundu guztia nire gainean. TAC proba egin zidaten eta esaten zuten arengatik, serioa zen. Medikuek argi hitz egin zidaten: laburbilduz, zortzi saihsak apurtuta nituen eta horietako bat birikan sartu zitzaidan. Bizkarrezur-muinean arazoaren bat zegoen eta ondorioz bi hanken mugikortasuna galdu nuen. Eta hortzak galdu nituen ere. Goiko ia hortz guztiak apurtu zitzaizkidan.

Zaragozan bertan ebakuntza egin zizuten.

Bizkarrezur-muinean hautsi ziren hezurak kentzeko ebakuntza egin zidaten, bizkarrezur-muina deskonprimatzeko. Ondoren beste ebakuntza bat egin beharra nuen, baina hau ez ziren Zaragozan egitera ausartu. Bigarrena Badalonan egin nuen, Guttman Neuroerabilitazio Ospitalean. Kontua da bi bizkarrezur-muin hautsita nituela, hobeto esanda, bat hautsita zegoen eta bestea guztiz lehertuta. Hori guztia garbitzeaz gain, bost bizkarrezur-muin finkatu behar ziren. Baina saihsak batengatik birika zulatua nuenez, ezin nintzen buruz behera egon arnasa hartzeko eta ebakuntza hori egiteko buruz behera egon beharra nuen. Hortaz, Zaragozan bizkarrezur-muineko garbiketa egin zi-

EGOKI
Ventanas PVC Leihok
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

daten eta bigarren ebakuntza, bost bizkarrezur-muin finkatzearena, Badalonan.

Zaragozan zenbat egon zinen?

Zainketa Intentsiboan Unitatean aste bat eta gelan bizpahiru egun, Badalonara bidali arte. Nik uste dut gehienetan sedatuta egon nintzela, une horietaz ez baitut oroitzapen gehiegirik. Uste dut familia sartzen zenean medikazioa jaisten zidatela, une horietaz gogoratzen naizelako, baina beste ez. Gogoan dudana da ospitaleko langile asko zeudela bueltaka, baina ezin nuen hitz egin, ezin bainuen arnasa ongi hartu.

Familiarendako ere kolpe latza.

Bai. Eta gainera etxetik kanpo, Zaragozan egon behar. Baina egoerari aurre egin behar, ez dago besterik.

Badalonara iritsi eta berehala egin al zizuten bigarren ebakuntza?

Ez, astebete pasa egon ziren nik berez arnasa ongi har nezan itxoiten eta saihestak bere onera egin zezaten esperoan. Une horietan arreba, bere mutil laguna eta nire neska laguna zeuden eta medikuek argi esan zieten, nire kabuz atera beharra nuela hortik. Ezin zela ezer egin. Ezin ninduten intubatu ere egin, birika lehertzeko arriskua zegoelako. Hortaz, arnasa ongi hartu arte ez zidaten ebakuntza egin.

Bizkarrezur-muina finkatzeko ebakuntza egin eta noiz hasi zinen errehabilitazioan?

Nik sekulako gogoan nuen errehabilitazioan hasteko. "Ea bizpahiru egunetan aulkira jaisten hasten naizen" esaten nien, baina ez ba. Ebakuntza ondoko egunetan oina zeak izan nituen, baina pixkanaka hobetzen joan nintzen. Bi aste egon nintzen gurgildun aulkira jaitsi nindutenera arte. Egutegi batean data guztiak ditut jasota. Hasieran pixkanaka goratzen hasteko esan zidaten, ia hilabete bat etzanda baineraman. Oheko goiko alde pixka bat jaso, eta hasieran sorbaldan min handia nuen eta zorabiatzen nintzen. Baina pixkanaka ohean eserita egotea lortu nuen eta esan zidaten gimnasia jais-teko unea iritsi zela.

ERREHABILITAZIOA

Errehabilitazioan arlo fisikoa eta psikologikoa aldi berean lantzen zenituzten?

Bai, guztia aldi berean. Terapia integratua zen.

Gimnasioan hasteko irrikaz zeundela esan duzu. Halako egoera



Motorrak Iñaki Mugikaren pasio izaten jarraitzen du. Motor munduan jarraitzen du eta bueltatuko dela argi du. UTZITAKOIA

gogor bati aurre egiteko jarrera hori oso garrantzitsua da, hanken mugikortasuna galdu izanagatik jende asko ere sekulako beheraldian egongo delako, gurgildun aulkia ikusi ere nahi ez duena.

Egoerari aurre egitea oso garrantzitsua da. Ezinbestekoa. Badalonako errehabilitazioan jende heldua edo jende gaztea zegoen. Jende gaztearendako, jakina, gogorragoa da halako egoera gogor bat barneratzea eta aurre egitea. Baina aurrera egin beharra dago. Ni kirola egitera ohituta nago, eta pixkanaka hasi nintzen. Hasieran kostatu zitzaidan, baina ohitura hartzen hasi eta konturatzeko martxan nengoen.

Halako egoeran soilik COVID-19 gaitza hartzea zen falta zitzaizun bakarra.

Ba hartu nuen, Badalonan (kar, kar...). Gimnasioan errehabilitazioan pixka bat gogor hasi nintzen izan zen. Bat-batean indar gutxiago nuela sumatzen nuen. "Saiatzen naiz, baina ze gorputz ahula dudana, ze pattal" pentsatzen nuen. Bi egun zora-biatuta bezala nengoen, indar gutxiarekin eta gauean sukar pixka batekin, baina munduko beste ezer. Odol eta pixa analisiak egin zizkidaten, eta dena ongi ateraz zen. Hiruzpalau egunetara pasa zen eta ez nion kasu gehi-ago egin. Nire neska laguna katarroarekin hasi zen, COVID-19 proba egin, eta positibo ateraz zen. Eta horrela konturatu ginen nik COVID-a pasa nuela, zorionez, konturatu gabe.

Errehabilitazioan zer lantzen duzue gehien? Gorputz enborra?

Gehien lantzen nuena, niretzat garrantzitsuena zena "core" deitzen dena da, gune abdominala. Gorputzean oreka izateko, eguneroko gauzak egiteko eta tente mantentzeko gune hori asko lan-

"EGOERARI AURRE EGIN BEHARRA DAGO. ERREHABILITAZIOAN HASTEKO IRRIKAZ NENGOEN"

"LESIOA OSATUTA DAGO. ORAIN HELBURUA GORPUTZ ENBORRAREN KONTROLA IZATEA DA"

tzen genuen. Hankak eskuekin bakarrik mugitzen ditut. Guztiz tente errehabilitazioan jartzen naiz, aparailu berezi horiekin.

BUELTA

Badalonako ospitaleko errehabilitazioa bukatuta, urriaren 9an Altsasura etorri zinen eta Iruñean jarraitzen duzu errehabilitazioan. Hobetzeko alde baduzu? Zer diote medikuek?

Medikuek diote ezin dela hobetu, nire lesioa osatua dagoela. Etxera etortzerakoan Imarkoaingo Neuroerrehabilitazio Arreta Gune Integralean hasi nintzen, errehabilitazioan jarraitzen eta lehendabiziko egunean galdetu zidaten zein den nire helburua. Eta nik esan nien gorputz enborraren kontrola DATORREN ORRIAN JARRAITZEN DU »

izatea dela nire helburua, oreka ahalik eta gehien berreskuratzea. Izan ere, edozertarako ezinbestekoa baita: edalontzia hartzeko, bazkaltzeko, arropa biltzeko... Ondo dagoen pertsona bat ez da konturatzen, baina tokatzen zai-zunean konturatzen zara zein garrantzitsua den gorputzaren oreka izatea.

Errehabilitazio saioak gogorrak izaten dira?

Egunero noa errehabilitaziora. Saioak zorrotzak dira. Astelehen, asteazken eta ostiraletan 9:00etatik 12:00etara eta asteartetan eta ostegunetan 9:00etatik 11:00etara aritzen naiz. Hasi nintzenetik hobekuntza nabaria izan dut eta pozik nago.

Zure etxea gurgildun aulkian egoteko prestatua al zegoen?

Lehenengo solairuan bizi naiz, eta igogailua dugunez komuna bakarrik aldatu behar izan nuen. Gutxika, gainontzeko gauzak moldatzen ari naiz nire beharretara. Momentuan konturatzen zara gauza horietaz. Eta zenbait espaloi dauden, edo eskailerak... **Espaloiak aipatu dituzu. Gure herrietan ditugun oztopo arkitektonikoak handiak dira?**

Bai, uste baino gehiago. Esaterako, Altsasuko plazan dagoen galtzadarria. Hortik ezin naiz pasa, aurreko gurgilak zirrikituetan tratatzen direlako. Oztopo asko daude herri eta toki gehienetan, oro har. Jatetxe eta tabernetako komunitate ate asko oso estuak dira eta ezin naiz sartu, edo dena askok goiko pisuetan dituzte ikusi beharrekoak eta ez dute igogailurik... halakoak.

BEGIRADAK

Herrira iritsi eta kalera gurgildun aulkian ateratzeko pauso hori gogor egin zitzaizun?

Nahi eta nahiez atera nintzen kalera, herrira etorri nintzen egunean lagunek sekulako ongi etorria egin baitzidaten tailerlean. Tailerrentz gindoazenean, auto pila ikusi nituen eta pentsatu nuen: ze arraro horrenbeste kotxe... eta han nituen lagun guztiak eta pilotu asko zain, ongi etorria egiten. Oso polita izan zen.

Zure kabuz atera zinen lehen aldian zer sentitu zenuen?

Nik ez dut inolako arazorik aulkian ateratzeko. Ez naiz etxean geratu behar beldurrez.

Agian kaleko jendeak okerrago pasatzen du ez dakielako halako egoera batean zuregana nola zuzendu?

Niretzat begiradak dira okerrera. Mundu guztiak begiratzen dizu "ai, ze gaixoa, ze zoritxarrekoa" begirada horrekin. Uste dute gaizki nagoela. Ondo ez gaude, baina begiratzen gaituzte gixajo begiradarekin. Eta hori gogorra da.

Hortaz, zuregana normal zuzentzen direnean hori eskertzen duzu.

Bai, normal etor daitezela, lasai asko. "Pixka bat baxuago nago, baina normal nago" esaten diet.

Jendeak ez du asmo txarrez egingo, baina halako egoera baten aurrean asko blokeatu egiten dira. Zuri pasatu zaizuna oso gogorra da, eta askok ez dute jakingo zuregana nola zuzendu.

Baina ni normal nagoela ikusita... Aurpegi txarra banu, ala negarrez egongo banintz, baina ni normal nago. Ni ikusten nauen jendeak beti ongi ikusten nau. Ongi nagoelako, hain zuzen ere.

Hortaz, zuretako okerrera erruki begirada horiek dira.

Bai, eta etengabe jendeak laguntza eskaintzea, denetarako. Jendea beti gainean egote hori. Agian espaloi bat igotzen nago eta "laguntza behar duzu?" etortzen zait jendea. Nik bakarrik igotzen dut, ahal bada, eta bestela moldatuko naiz. Esan nahi dut, laguntza eskaintzea normala da, baina etengabe... Dena den, egia da egoera asko baretu dela. Hasieran mundu guztia etortzen zitzaidan, eta orain normalagoa da harremana. Ezagutzen ez zaituen jendea bai nabaritzen duzula erruki begirada hori. Badakit ez dela

"JENDEA NORMAL HURBIL DADILA, ONGI NAGOELAKO. ERRUKI BEGIRADA HORIEK MINDU DEZAKETE"

"USTE BAINO OZTOPO ARKITEKTONIKO GEHIAGO DAUDE; AULKIAN ZOAZENEAN KONTURATZEN ZARA"

"MOTORREN MUNDUAN JARRAITZEN DUT. BUELTATUKO NAIZ. EGOKITUTAKO MOTORRAK BADAUDE"



Iñaki Mugika errehabilitazioko saio batean. UTZITAKOIA



Iñaki Mugika rally bateko asistentzia gunean. Datorren urtean Dakarrera joan nahiko luke.

nahita egindakoa, baina konturatu gabe jendea mindu daiteke. **Zure egoeran zein beste alor zaindu behar dituzu? Zuretako arriskutsuagoa da katarro bat edo ez du zertan?** Guztia da arriskutsuagoa. Hotza oso arriskutsua da, hankak ez sentitzean hankak hozten direlako eta infekzioak har ditzakezulako. Bi izan ditut. Gure kasuan infekzioak hartzea arriskutsua da, eta hartuz gero, ongi zaindu behar dira.

Beraz, beroarekin hobeto?

Bai. Nik hotza asko nabaritzen dut. Eguraldi hotzerako aldaketak datozenean, aiton-amonek bezala, guztiak nabaritzen dut.

MOTORRAK PASIO IZATEN DARRAI 2016an zabaldu zenuen zure motor tailerra, M-86, Altsasun, motorrendako Sakanan dagoen tailer bakarra. Orain bajaran zaude, baina moldaketaren bat eginez gero tailerlean lan egiten jarraitzeko aukera ikusten duzu?

Oraindik ez dut burua horretan jarri, baina agian nik uste dut egin daitekeela. Denborarekin saiatuko naiz eta ikusiko dugu. **Aurreko elkarrizketan esan zenuen txiki-txikitatik motorra zela zure bizitza, zure pasioa eta zure lanbidea. Istripua eta gero motorrarekiko halako maitasun-gorroto sentipena al duzu? Ala motor probak eta beste-lakoak jarraitzen segitzen duzu?**

Bai, eta bueltatuko naiz.

Quadak hor daude.

Quadak ez, ni bi gurgiletan beti. Badago modalitate bat, egokitutako motorrena. Handy deitzen da eta zirkuituko modalitatea da. Motorrera igotzeko eta jaisteko laguntza behar da, baina gero motorrak mando guztiak eskutan ditu, heldulekuan.

Ui ui ui... saltseatzen ari zara, ikusten zaitut.

Bai (kar, kar...).

Club Aventura Tuareg taldekoek zer diote?

Lasterketetara joateko animatzen naute. Aurten Dakarrera eraman nahi ninduten, baina ezetz esan nien, aurten ezin nuela. Baina gogotsu nago. Eta joango naiz. Aurten ez, baina datorren urtean saiatuko naiz. Beste lan mota bat egingo dut, baina ahal denean laguntzera joateko gogoz.

Ilusioak izatea ez dago gaizki.

(Kar, kar...) Ilusioez bizi behar da, bestela, gaizki. Arazoak bakarrik etortzen dira, bilatu gabe gainera. **Hurrenean Dakarrean zer moduz ibili zaren galdetzeraz etorriko gara. Ea datorren urtean den!**



ASTEKOA

AINGERU MIKEE

Gizatxar koldarrak

Fermin, Xabier eta Mikel pisu batean bizi dira eta auzunean Gloria bizi da. Hiruere zuten gogoko nahiz eta Fermin izan harekin harreman handiena zuena. Egun batean, afari baten bueltan, trago batzuen artean, bururatu eta ondu zuten plana. Handik egun batzuetara, Gloria gonbidatu zuten afaltzera eta hark onartu egin zuen. Hiruren artean afari goxoa prestatu zuten, zehazki, ahate fetutxina gravi saltsarekin, Italiako plater tipikoa, eta edateko Toscanako hiru botila Fonterezza Pettiroso ardo berezia. Hitzordu egunean, Gloria tenorean ailegatu zen eta mahaira eseri aurretik, Campari koktela hartu zuten. Txantxen artean, berriketa umoretsua eta alaia izan zuten, hobeki ezagutzeko bidean ari ziren lagun berrien arteko urduritasun puntua tarteko. Afaria aurrera zihoala, batetik bestera, basotxo bat ardo besterik edan ez bazuen ere, Gloria zorabio goxo batean sartu zen eta egongelako besaulkian eseri zen. Handik minutu batzuetara, Gloriak zentzumena galduea eta burua nahasirik zuela baliatuta, hiruren artean arropak erantzi, ukituak egin eta bortxatu egin zuten, hirurek. Ondoren, arropak berriz jantzita besaulkian utzi zuten bere onera etor zedin. Ordu pare batean Gloriak zentzumena berreskuratu zuen eta oraindik burua nahasita zuela, baldar, etxetik alde egin zuen. Fermin, Xabierrek eta Mikelek irriak egiten dituzte egun hartan gertatutakoaz gogoratzean eta beste ehizaldi baten asmo-bidean jarriak dira.

Gloriak, etxeraterako, gertatutakoari susmoa hartua zion eta hainbat irudi lainotsu gogoan zituen. Ziur zegoen sustantzia kimikoren batekin zentzumena galduarazita sexu bortxaketa egin ziotela eta nazka eta ezintasuna sentitu zituen. Atsekabaturik eta umiliaturik pasatu zuen bihamuna. Hurrengo egunean abokatu batekin hitz egin, txosten medikoak eta ahal zituen proba guztiak bilduta auzitegiara jo zuen. Hala ere, auzitegiak bere kasua artxibatu egin zuen. Geroztik, Gloriak, kemenez, terapia psikologikoan eta borrokan segitzen du bere kasua deusean ez gelditzeko. Egun hauetan ehun eta piko mila sinadura aurkeztu ditu Justizia Ministerioan sexu-eraso eta abusuen aurrean protokolo eraginkorrak zehaztu daitezela. Bitartean, politikariak liskar ergeletan murgildurik eta Justizia mutu, gor eta itsu. Horrela, bortxaketa larrien aurrean, erasotzaileentzat zikiratze kirurgikoa eta zigorra eta biktimentzat asistentzia eta erreparazioa; bestela, gizatxar koldarrek indartsu segituko dute.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Zaintza eta denboraren erabilera generotik

SAKANAKO BERTINTASUN ZERBITZUA

Zortzi ordu lo egin, lanetik atera eta erosketak egitera, gero etxea garbitzera, janaria prestatzera, haurrak jaso eta eskolaz kanpoko jardueretara eramatea, kirola egin, irakurri, lagunekin ateratzeko tartetxo bat, ikasi eta zure buruaren zaintzeko denbora hartu, baina kontuz, soilik 24 ordu dituzu dena egiteko.

Hori pertsona askoren eguneroko bizitzaren erritmoa da, eta zehazki emakumeen bizi erritmoa. Hau da, denboraren erabilera ere, generoak badu zer esan. Gure gizartea

kapitalista patriarkalaren nahien mesede, ez dira inondik inora pertsonen erritmoak kontuan hartzen produktibo nahi baikaitu, eta ez ditu gure beharrak erdigunean jartzen; ez ditu BIZITZAK erdigunean jartzen. Bizitzak erdigunean jarri behar direla diogunean, hainbat eta hainbat alderdien artean, zaintza eta denboraren erabilera mintzo gara.

Kapitalismo patriarkalaren logikan, 8 ordu lo, 8 ordu lan eta 8 ordu "libre"-ko logikan antolatzen gaitu, baina logika hori soilik zaintza lan guztiak aserik dituzten pertsonak bete dezakete. Gure beharrak asetzera eta gizartearen erritmo azkarrak disritmiak edo talkak sortzen ditu bata bestearrekin, eta lan karga hori sostenga ezina denez,

emakumeen gain jartzen da. Izan ere, feminizaturiko eta genero desoreka gehien duten lanak denborari erreparatu, etxeko lanak eta zaintzak dira.

Hortaz, emakumeek denbora gehiago eskaintzen dute etxeko lanak eta zaintza lanak egitera, haien denbora erabiliz. Oraindik ere super woman edo denarekin ahal duen emakumearen eredu hori sustatzen du sistemak, baina eredu hori guztiz sostenga ezina da.

Gauzak horrela, horri aurre egiteko enpleguaren, zaintza eta denboraren erabilera kontzeptualizazio berria egin behar da, bizitzak erdigunean jartzen dituen, ardurak orekatuz eta banatuz, hori guztia modu kolektibo unibertsal eta publiko batean antolatuz.

GUTUNA

Lehen mailako arretarik eza Altsasu, Olazti eta Ziordiko Oinarrizko Osasun Eremuan

FRANCISCO JAVIER PAZ

ALTSASUKO EH BILDUKO ZINEGOTZIA ETA ALTSASU, OLAZTI ETA ZIORDIKO OSASUN KONTSEILUKO PRESIDENTEA

Altsasu, Olazti eta Ziordiko Oinarrizko Osasun Eremuan medikuen falta aski ezaguna da, eta aspalditik dator. Urte gehiegi daramatzagu bete gabeko arreta medikuko plazeekin, eta horrek esan nahi du hiru herrietako herritarrei ematen zaien osasun laguntzaren kalitatea onartezina dela. Horrek lan gainkarga handia dakarkie zentroko gainerako profesionali, lanpostu huts horiek artatzen ez dituzten patologiak euren gain hartu behar baitituzte. Horrez gain, plaza horiek denbora

laburrean betetzen dituzten profesionalak etengabe txandakatzen dira, eta, horrela, herritarren asistentzia premiak sakon ezagutzea eragozten da.

Egiturazko gabezia horiei COVID-19aren egungo pandemia gehitu behar zaie, osasun zentroaren egoera, hau da, bertako profesionalena eta erabiltzaileena, oso larri egotera eraman baitu, eta Altsasuko osasun etxean kontsultei erantzuteko mediku bakarra egotera iritsi da. Horri gehitu behar zaio SNS/Osasunbideak ez diola egoera horren berri ematen 112ri, eta larrialdiak kontsulta ordutegian bideratzen zirela, pertsona horrek kontsulta utzi behar izandu haiek artatzeko.

Pandemiaren bi urte, lehen mailako arretaren garrantzia entzuten bi urte eta osasun sistemaren oinarria, hau da, lehen mailako arreta, indartzeko

beharrezko ahaleginak egin ez diren bi urte. Landa eremuetako lehen mailako arretaren narriadura arazo nabarmena da, eta premiazkoa da arazo horri aurre egitea. Hirigune handietan gehiegi zentratutako plangintza aldatu behar da. BAME plaza gehiago behar dira lehen mailako arretan, plaza hutsak betetzeko eta erretiratzeko diren langileen txanda bermatzeko. Beharrezkoa da landa eremuetako langileen lan egoerari heltzea, hala nola Altsasu, Olazti eta Ziordiko Oinarrizko Eremuari, plazei egonkortasuna eman eta horiek betetzea errazteko. Azken batean, unean uneko premiak konpontzeko adabakiez harago, Nafarroan lehen mailako arreta sistemak bizi duen arazoari heltzea premiazkoa da, arreta ematen diguten profesionalak eta sistemaren erabiltzaileak kontuan hartuta.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Joxe Aldasoro Jauregi

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso
maketatzailea@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Motxila 21 taldeak parte hartzen duen bilduma

Bizipoza elkartearen 'Mundu berri bat guztiontzat (2)' kantu eta bideoklipen bilduma dagoeneko argitaratu dute. 12 elkarteri buruzko kantuak eta bideoklipak biltzen ditu lanak. Gizarte arloko elkarte horien errealitatea ezagutzeko bitartekoa da bilduma

SAKANA

Bizipoza elkarteak *Mundu berri bat guztiontzat (2)* kantu eta bideoklipen bilduma ilbeltzaren 29an aurkeztu zuen. Egitasmoaren bigarren edizioan 12 elkarteren kantu eta bideoklipak jaso dituzte. Horiek elkarteek egunerokoan lantzen dituzten gaiak eta haien errealitatea jaso dituzte, elkarte bakoitzaren egitekoa musika, hitza eta irudiaren bidez gizarteratzeko. "Izugarrizko oparia elkar-teondako" esan zuten elkar-teetako ordezkariak aurkezpenean.

Kantu guztiak euskal dozena bat idazlek eta bertsolarik eta elkarteek elkarlanean sortutakoak dira. Kantuen konpositorea Xabier Zabala izan da eta hura interpretatu dute Euskal Herriko hamar abeslarik eta lau musika taldek. Bilduman 11 abestiz eta 11 bideoklip bez osatutako CDa eta DVDa daude. Horrekin batera, liburuxka bat ere badu bildumak. Han elkarte bakoitzaren ilustrazio, deskribapena, ipuintxo, abestiaren letra eta sortzaileen eta elkarteetako kideen talde argazkiak daude.

Proiektuan Motxila 21 musika taldeak parte hartu du. Hau da, Aintzane Lizarraga Etxeberriak saxofoi jolea eta taldeko boluntario eta akordeoilari Ainhoa Lizarraga Etxeberriak eta An-



Motxila 21 taldeak bildumaren aurkezpenean jo zuen. IBAI ARRIETA

HAMABI ELKARTEREN EGITEKOA MUSIKA, HITZA ETA IRUDIAREN BIDEZ GIZARTERATU DUTE

doni Zilbeti Elia saxofoi eta gitarrajole eta abeslari dorrobarrak ere. Andoni Egaña bertsolariak sortutako Hogeitabira letra abestu du Motxila 21ek, Euskal Herriko Down Syndrome Fundazioaren alde. Motxila 21ekoek

aurkezpen ekitaldian ere izan zen, eta bildutako guztiei hiru kantu eskaini zizkieten. Bizipoza elkarteak martxoaren 4ra arte astero, astearte eta ostiraletan, bideoklip bat argitaratzen ari da bere web orrian, www.bizipoza.eus. Motxila 21 taldearena hila-ren bat az geroztik dago ikusgai.

Bizipozaz

Izaera bereziko gaiak lantzen dituzten 36 elkarte osatzen dute Bizipoza, haietako hainbat eskubideak bete gabe eta behar bereziak dituzten haur eta familie-ek osatutakoak dira. Bizipoza-ren bidez elkarteak lantzen dituzten gaiak azalarazten dituzte, ume eta heldu euskararen bidez sentibilizatu. Horrekin batera, errealitate horiek lantzen dituzten elkarteek laguntza afektiboa ematez aparte, eguneroko lanerako dituzten premiei erantzuteko baliabide funtzionalak lortzeko laguntza eskaintzen dute. Eta, azkenik, gizar-tegintzan euskaraz eta bizipozez jardun nahi duten herritarrei auzolan egitasmo eraginkorra eskaintzen die Bizipozak, boluntario sare bat osatuz. Bizipozari buruzko gehiago jakiteko www.bizipoza.eus webgunera jo daiteke.



Pedro Oliver Olmo historialaria Gaston eta Ollo gobernukideen erdian. UTZITAKOA

Soldadutzaren kontrako mugimenduaren hasierak

Kontzientzia eragozpenak 70 eta 80ko hamarkadetan izandako bilakaera liburuan jaso du gobernuak

SAKANA

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanak Departamentuaren menpe dagoen Nafarroako Memoriarako Institutuak sustatuta, kontzientzia eragozpenak eta intsumisioak Nafarroan izandako ibilbidea eta hark bake kulturaren zabalkunde egin dako ekarpena jasotzen hasi zen 2018an. Ikerketa haren azken emaitza Pedro Oliver Olmo historialari eta intsumituaren Ejerzitorik ez - No a los ejércitos (1974-1989) liburu da, asteartean aurkeztu zuena Ana Ollo Hualde kontseilariak.

Mugimendu anitza eta askotarikoa izan zen. XX. mendeko hirurogeiko hamarkadaren erdialdean eman zituen lehen pausoak. Laurogeiko hamarkadan, ehunka gazte nafarrek, Estatu osoko beste milaka gazterekin batera, zerbitzu militarra kontzientzia eragozpenaren eta intsumisioaren bidez zalantzan jarri zuten. Liburuak Nafarroako kontzientzia eragozpenaren mugimenduaren sorreraren eta garapenaren sintesi bat da.

Lanak hamabi kapitulu eta epilogo bat ditu. Lehenengo seiak hirurogeita hamarrek hamarkadako mugimenduaren sorrerari eta lehen pausoei buruzkoak dira. Elkarteko eta antolatze-ko lehen tokiak berrikusi dira, bai eta estatuko koordinazioarekiko harremana ere, Kontzientzia Eragozpen Mugimenduaren (KEM-MOC) inguruan taldeak sortuz gauzatu zena. Beste sei kapituluak mugimenduaren

oinarri sozialaren zabaltzea, ezker erradikalaren inkorporazioa eta eremu geografiko txikiagoko taldeen sorrera azaltzen dituzte, esaterako, Sakanako Antimilitarista Taldea. Liburuak 90eko hamarkadako intsumisio ez-tandaren atarian bukatzen da. Oliverrek azaldu duenez, bigarren liburu batean jaso daiteke epe hori.

Beste emaitzak

Nafarroako Memoriarako Institutuak eskatuta aritu dira Oliver eta Bruno Lopez Areitio gaia eta garaia ikertzen. Bien ikerketek aurretik ere eman dute emaitzarik. Batetik, Nafarroako Kontzientzia Objektioaren eta Intsumisio Mugimenduaren Artxibo Historikoa aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuak joan den urteko otsailaren 16an. Bertan KEM-MOC, Kakitzat, Intsumisio Presoen Batzarra, EHGAM, Carlos Rey, Iñaki Subiza eta Juanjo Morenoren 6.000 dokumentu, 15.000 orri baino gehiago, kontsultatu daitezke.

Eta, bestetik, mugimenduaren ahozko ondarea dago. Lan hura egin ahal izateko, protagonista izan ziren hainbat pertsonarekin elkarrizketa kolektiboak egin zituen Oliverrek. Haietako bat Olatzagutiko kultur etxean egin zen eta Sakanako Antimilitarista Taldeko hamar kide izan ziren elkarrizketatuak. Beraz, mugimenduaren iritziak protagonisten ahotsean ezagutzeko aukera ematen du joan den urteko irailaren 21etik.

BIKAIN GARAJEA

Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta
furgoneta saila

948 460 037 Arbizu

FLORES

Utzubar industrialdea Arbizu
948 460 499
Nafarroako berezko txistorra.

Negozioen erreleboari bultzada eman nahian

Cederna Garalurrek proiektu baten bidez negozioen erreleboa bultzatu nahi du ekintzailetzaren alternatiba gisa. Horretarako, Mendialdean errelebo egoeran dauden negozioen berri emanen du, eta haien ekonomia bideragarritasuna aztertu

SAKANA

Taberna bat han, kristaldegia hemen, gozotegia bestean... Pitteka-pitka denda eta negozio txikiak ixten ari dira Sakanan. Itxiera bakoitza zerbitzu eta eskaintza aniztasunaren galera bat da sakandarrendako. Eta lanpostuen galderarekin batera, gure herrietako kaleek bizitza eta alaitasuna galtzen dute. Ateak ixtearen atzean makina bat arrazoi egon daitezke: arduradunen jubilazioa, familia erreleborik falta, kontsumo ohituren aldaketak, eta merkataritza gunen handien edo Interneten lehia...

Horren jakitun, Cederna Garalur elkarteak *Etorkizunera zabalik* kanpaina abiarazi du, landa negozioen erreleboa eman eta landa ekintzailetzaren alternatiba izan nahi duena. Ekimen horrekin Garalurrek negozio txikien itxiera geldiarazten lagundu nahi du, haien ekonomia bideragarritasuna eta bezeroekin sortzen den hurbiltasuna eta konfiantza azpimarratuz. Elkar-tea hasi da dagoeneko errelebo edo transferentzia egoeran dauden landa negozio txikiak identifikatzen eta erakartzen. Aldi berean, hurrengo hilabeteetan areagotu egingen du negozio horiek bere gain hartzen dituzten ekin-tzaileen bilaketa.



Irurtzundarrak herri erdigunean. ARTXIBOA

Erreleboa errazteko asmoz, Cederna Garalur elkarteak interesa dutenei negozioaren azterketa bat eskaintzen du, bi ikuspuntutatik egingen duena. Alde batetik, jardueraren arduradunarena, eta, bestetik, jarduera hartu nahi duenarena. Garalurreko arduradunek espero dute negozioaren baldintzak zerbaki errealekin ezagutzeak aldean arteko negoziatzioa eta erreleboa erraztuko dituela. Gainera, Garalurrek errelebo guztien artean hiru kasu hautatuko ditu, eta haiei marketing eta komuni-

kazioko prestakuntza osagarria eskainiko die.

Bestalde, bi aldean arteko harremana errazteko, Garalurrek jakinarazi du Nafarroako Mendialdeko hainbat tokitan erreleboa behar duten negozioak aurkezteko hainbat jardunaldi antolatuko dituela. Haiei itxiera emateko Nafarroako ekintzaile guztiei zuzendutako jardunaldi nagusi bat egonen da. Horiek Garalurren *Hartu Lekukoak* proiektuaren baitan daude, eta Nafarroako Gobernuak eta Europako Feader finantzatuta.

Energia trantsizioan erakundeak, enpresak eta herritarrak

Udalei eta herritarrei eskura dituzten neurri eta dirulaguntzen berri emanen dizkiete martxoan

SAKANA

Toki entitateetan energia trantsizioa bulkatzeko, Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Enpresa Garapenerako Departamentuak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak (NUKF) elkarrekin lan egingen dute. Hala erabaki zuten atzo. Elkarrekin egingen duten lehen ekintzetako bat zortzi eskualdetan informazio jardunaldiak egitea da. Haietako bat Lakuntzan izanen da, Sakanako Mankomunitatearen egoitzan, martxoaren 8an, asteartearrekin, 11:30ean. Saioa ibarreko erakundeei eta sakandarrei zuzenduta dago, eta bertan azalduko dute energia trantsizioa egiteko departamentuak ematen dituen laguntzak. Gainera, bileretan beharrezko aholkularitza eskainiko da, eta parte hartzaileek energia trantsizioarekin lotuta planteatutako zalantzei erantzunen diete.

Jardunaldiek bat egiten dute departamentua garatzen ari den beste ekintza batzuekin, esaterako, energia trantsizioarako webgunea. Ekonomia eta Enpresa Garapenerako kontseilari Mikel Irujo Amezagak azpimarratu duenez, "web orri horren helburua da herritarrak ahalduntzea trantsizio energetikoan aktiboki parte har dezaten".

Esanak

Irujok nabarmendu duenez, "garantzitsua da tokiko erakundeek, enpresek eta herritarrek energia trantsizioarekin konpromisoa

hartzea Europak ezarritako deskarbonizazio helburuak lortzeko". Gaineratu duenez, "Nafarroako Gobernu ahalegin handia egiten ari da eragile horiek egin beharreko aldaketak errazteko laguntzak eta dirulaguntzak ematen eta kudeatzen, eta prozesu horretan lurraldetik hurbilen dauden administrazioak, Tokiko Ekintza Taldeak, funtsezko elementuak dira". Bileran, besteak beste Cederna Garalurreko Ibon Mimentza Irala eta Sakanako Garapen Agentziako Iker Manteola Matxain egon ziren.

Bestalde, NUKFko presidente Juan Carlos Castillo Ezpeletak adierazi duenez, "federazioa proiektu eta jarduera ugari garatzen ari dela energia berdea sortzeko eta autokontsumitzeko, ekipoak eta instalazioak eraldatzeko eta energia eraginkortasuna hobetzeko neurriak hartzeko". NUKFk egindako jardueren artean, Castilok nabarmendu du eguzki energian oinarrituta autokontsumorako sistemak sortu direla, galdarak biomasa ardatu, argiak berritu eta erregai fosiletako ibilgailuak elektrikoekin ordezkatu direla. Gainera, adierazi nahi izan du dagoeneko hasi direla energia komunitateei buruzko proiektuak prestatzen, bizilagunek eta enpresek parte hartzeko.

Departamentuak gaur egun 30 milioi euro kudeatzen ditu energia trantsizioarako laguntzetan. Horietatik aurtan 8.272.458,38 euro toki erakundeendako dira.

BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan
24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Salbuespenik gabe.



bertako
igogailuak | ascensores
www.bertako.eus



TELEFONO JAUSITAKO
OBJEKTOAK
BERRESKURATZEA

WARRANTIA
EGOKIAK

IGOGAILUAK
ZARATAK

365/24/7

ARABA
945 712 822
GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935
NAFARROA
848 870 917

0-3 ziklorako baldintza duinak eskatuko dituzte

Larunbatean, 12:00etan, Iruñeko autobus geltokiko zabalgunean bilkura deitu du Nafarroako 0-3 plataformak. Gobernuarekin negoziazioa agortuta, hezitzaileek mobilizazio egutegia prestatu dute. Greba mugagabea egitea ez dute bazterzen

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Haur Hezkuntza duintzea, helburu hori du Nafarroako 0-3 plataformak. Bere aldarrikapena kalera joan den urteko maiatzean atera zuten azkenekoz eta, besteak beste honakoak aldarrikatu zituzten: langileen egoera duintzea, 0-3 zikloa funtsezko zerbitzutzat hartzea, Haur Hezkuntza duintzeko alde guztiak lan koordinatua egiteko bilereki boikotik ez egitea, zikloaren doakotasuna eta tarifa garestiak ez izatea. Orduz geroztik haur eskolen egoera ez da aldatu. Plataformako kideak, ordea, ez dira geldirik egon eta haur eskoletan lan egiten duten hezitzaile eta garbitzaileen artean datu bilketa egin dute. Baita haur eskolen jabe diren udalen iritzia jaso ere.

Jasotako datuek eta egoera aldatu ez izanak "negoziatio politikoa agortuta dagoela erakutsi digute, ez dago biderik. Presioa egiteko mobilizazioak egitea erabaki dugu. Zerumugan greba mugagabea dugu" azaldu du plataformako kide Eider Garde Mazkiaranek. Mobilizazioekin plataformako kideek Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua "interpelatu" nahi dute.

Egoera

Gardek azaldu duenez, "Hezkuntza Departamentuak ezartzen du haur eskolen araudiaren %100, baina eskolak udalena dira. Estatuan Hezkuntza eskumena erkidegoena da, ez udalena. Departamentuak berak onartua du haur eskoletan eskaintzen dena Hezkuntza ziklo bat dela". Eskaintzen dituzten beste zerbitzu batzuekin gertatzen den moduan, haur eskolen kasuan udalak Nafarroako Gobernuaren finantziarioaren menpeko dira. Udalek haur eskolen %24 finantzatzeko dute eta Nafarroako Gobernuak %76. "Zer gertatzen da? Gobernuak ordainketetarako ezarritako modulua errealitatetik



Haur eskoletako hezitzaileek ostegunean egindako batzarra. NAFARROA 0-3 PLATAFORMA

"NEGOZIAZIOA AGORTUTA DAGOELA ERAKUTSI DIGUTE, MOBILIZAZIOAK EGINEN DITUGU"

kanpo dago, eta udalek %24 baino askoz gehiago ordaindu behar izaten dute. Modulu horretan, kasu askotan, ez dago langileen antzinatasuna jasota, eta langileen ordezkapenetarako partida oso txikia da. Are gehiago COVID-19 garaian", azaldu du Gardek. Pandemiarekin haur eskoletan lan karga handitu dela gaineratu du.

Hezitzaileen ordezkapen gaiak zuzeneko eragina izan du zerbitzuan: "udal batzuk bere gain hartu dute gaixotu den langileen ordezkatzeak dakarren gain kostua. Beste udal batzuk ez dute nahikoa dirurik eta ezin izan dute ordezkorik kontratatu eta, ondorioz, hezitzaileak askoz ere haur gehiagoren ardura izan du. Gainera, lan baldintzak oso eskasak direnez, inork ez du ordezkapen bat egin nahi haur eskola batean". Plataformako

kideek badakite haur eskolak dituzten udalek zailtasun handiak dituztela gaur egun. Eta egoera hori izanda Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioak gaia bideratzeko lidergorik ez hartzea deitoratu dute.

Aldarrikapenak

Orain arte plataformak hezitzaile bakoitzaren ardurapean izan behar zituen ume kopurua jaitzea eskatzen zuen, ratioa jaitzea. "Carlos Gimeno Gurpegi hezkuntza kontseilariak esaten zigun hori eginez gero haur eskoletako plaza kopurua jaitziko zela eta jendea kanpoan geldituko zela. Beraz, orain langileak bikoiztea eskatzen dugu; talde bakoitzarekin bi hezitzaile egotea. Horrela, plaza kopurua ez zen gutxituko", azaldu du Gardek.

Alde berean, plataformak haur eskolen finantzaketa modulua handitzea eskatu du, "gastu errealerak egokitzeko. Eta, horrela, udalek %24 eta departamentuak %76 ordaintzeko". Moduluaren egokitzapenak ere langileen lan baldintzatan eragina izanen luke: "azken hamarkadan %0,9ko bi soldata igoera sinboliko izan ditugu. Kontsu-

mo Prezioen Indizea askoz ere gehiago handitu da. Erosteke ahalmena galtzen ari gara hezitzaileak".

Bestalde, plataformako kideen artean haserrea eragin du Gimenoaren azken adierazpenak. "Europatik etorriko diren funtsak haur hezkuntzaren doakotasunerako bideratu beharrean, bigarren zikloan bi urtekoen gelak zabaltzea nahi du". Haur Hezkuntza bi zikloetan banatuta dago, lehenak 0 eta 3 urte arteko umeak hartzen ditu, eta bigarrenak 3 eta 6 urte artekoak. Gimenoaren asmoak aurrera eginen balu lehen zikloa 0 eta 2 urte arteko umeak hartuko litzuke bakarrik. "Hori pedagogiaren eta naturaren kontrakoa da. Gainera, bi urtekoen gela desagertuta langileen herena kalean geldituko litzateke".



Ikasleak mantak uzten. ANDRA MARI IKAST.

Siriarako manta bilketak aurrera segitzen du

Andra Mari ikastolan, Sagrado Corazon ikastetxean, Etxarrin eta Altsasun jasotzen dira

SAKANA

Gerraren ondorioz Sirian beraien etxetik kanpo bizi dira makina bat pertsona. Negu gorrian, elurteekin, siriarak hotz handia pasatzen ari dira. Haietako asko olanazko kanpin dendetan bizi dira gaur egun. Ayuda Contenedores gobernuz kanpoko elkartek Siriarak bidaltzeko mantak jasotzen ari da. Errefuxiatu eta desplazatuak gaia ikasgeletan landu zuten Andra Mari ikastolan. Gobernuak kanpoko elkarteko kideen manta premiaren berri eman zieten eta klasean landu-takoari manta bilketa batzea erabaki zuten. Ayuda Contenedores gobernuz kanpoko elkartek ibarreko ikastetxei deialdia egin zuten manta bilketarekin bat egiteko eta Altsasuko Sagrado Corazon ikastetxeak bat egitea erabaki du.

Aipatu ikastetxez aparte, beste bi puntutan eman daitezke Siriarako mantak. Etxarri Aranatzen, boluntario taldeak Elizkorta kalean duen egoitzan jasoko dituzte (kultur etxearen zeharreko kalean). Ateak otsailko astelehenean zabalduko dituzte, 17:00etatik 18:30era arte. Altsasun, berriz, Frontoi zeharbideko 14. zenbakiko udalaren bajearen, asteazkenean 10:00etatik 13:00etara.

Mobilizazio egutegia

Otsailak 3, osteguna

- Langileen batzarra otsailko ostegunetan.

Otsailak 12, larunbata

- Elkarretaratzea.

Otsailak 26, larunbata

- Auto karabana.

Martxoak 3, osteguna

- Langileen batzarra martxoak ostegunetan.

Martxoak 12 eta 13, larunbata eta igandea

- Itxialdia eskoletan.

Martxoak 26, larunbata

- Elkarretaratzea

Apirilak 7, osteguna

- Greba eguna, eta langileen batzarra (baita 28an ere).

Apirilak 9, larunbata

- Aldarrikapen jolasgunea.

Apirilak 23, larunbata

- Greba aurreko langileen batzarra.

Maiatzak 2, astelehena

- Haur eskola duinen aldeko greba mugagabearen hasiera.

Udalak dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza du

Onura publikoko edo gizarte intereseko jardueraren bat bultzatzeko helburua duten ekintzak laguntzeko

ARAKIL

Arakildarrak kultura, elkartasuna, berdintasuna, kirola, boluntario lana, ingurumena, eta bizikidetzan, kulturen arteko trukaketa, gizarte partaidetza, herritartasuna eraikitzeke espazio eta abarretan aritzen dira. Horregatik, Arakilgo Udalean, "gizartearen bultzada hori dela eta, gero eta gehiagok eskatu eta parte hartzen du Arakilen egiten diren gizarte ekimeneko programa eta jarduera ugarietan".

Hala ere, beste tokietakoa ere Arakilen nabari da: "boluntario-

tzaren ahultze progresiboa, besteak beste individualismoa handitzeagatik, elkartearen diru eskasiagatik eta kudeaketa gero eta konplexuagoa izateagatik. Horiek guztiak lanerako motibazioa gutxitzea dakarte". Egingandako jarduerak Arakilgo "gizartearendako balio erantsi handia dute, bai zuzeneko parte hartzaile eta bultzatzaileendako, baita jardueren onuradunendako ere". Horregatik, udalak elkartearen lana errazteko gero eta diru gehiago bideratzen du, eta orain arautua du.



Txirrindularia Irurtzundik Plazaolako bide berderantz abiatzen. ARTXIBOA



Aizkorben Arakilgo zuhaitz eguna ospatu zenekoa. ARTXIBOA

Aizkorbeo kanpo santurako araudia onartu du udalak

Hilobiak prestatu, desobiratzeak eta lekualdaketak egin, lorezaintza, garbitasuna eta mantentzea eginen ditu

AIZKORBE

Aizkorbeo Kontzejua desegin ondoren herriko kanpo santuko zerbitzuen zuzeneko kudeaketa Arakilgo Udalarari dagokio. Hau da, hilerria administratu eta mantendu, zaindu, garbitu, egokitu eta zerbitzuaren ordena zuzena bermatuko du Arakilgo Udalak. Horrekin batera, hilobien eta giltzen banaketaz eta kontzesioaz arduratuko da. Baita era guztietako ehorzketa eskubideak onartu, aldatu, eta haien iraungipena deklaratzeko ere. Hilobiak hustu eta garbitzean agertzen direnak suntsitu eginen ditu

udalak. Horretaz aparte, hilerriarendako zerga ordenantza bidez tasak eta eskubideak zehaztuko ditu.

Hilerriaren kudeaketa dela eta, Arakilgo Udalak aizkorbetarren beharrei erantzuteko adina hilobi eraiki eta banatuko ditu. Udalak Aizkorbeo hilerriaren erregistroa izanen du. Han jasota geldituko da hilobiaren identifikazioa, kontzesioaren data, ordaindutako tasak eta hilobien gaineko betebeharrak edo eskubideak bere bizkar hartzen dituen ordezkari edo ahaidearen izen-deiturak eta helbidea.

Plazaolako gorabeherak jakinarazteko APP berria

Ostegunean, 16:00etatik 18:00etara, aplikazioa ezagutarazteko eta boluntariotza sustatzeko tailerra egingen da Latasako Biltegian. Tokia erreserbatzeko 948 507 204 edo 948 507 205 telefonoetara hots egin edo plazaola@plazaola.org e-postara idatzi

ARAKIL / IRURTZUN

Oinez, lasterka, bizikletan... Plazaola bide berdetik mugitzeko moduak dira. Badira, egunero ez bada, maiz ibiltzen direnak Plazaolan barna. Ibiltariak, lasterkariak edo txirrindulariak batzuetan gorabeherak ikusten ditu bide berdean: luizia, tunelen batean trabaren bat, eroritako zuhaitza bidean, euriteek hondatutako bide zatia... Orain arte halakoak udalei edo Plazaola turismo partzuergoari jakinarazten zieten zuzenean Plazaolako zaindariak. Baina aurki horretarako telefono mugikor baten aplikazioa izanen da erabilgarri, momentuan eta zuzenean bidean dauden gorabeheren berri emateko. Aplikazioak, erraz, gorabeherak geolokalizatu, argazkiak egin eta deskribatzeko aukera ematen du.

Nafarroa Ezagutu Sarea da naturagune babestuak kudeatzen dituzten entitate eta pertsonen sortutako sarea. Plazaola bide berdea kide sortzailea da eta han

mustuko dute sareak sortu duen aplikazioa, Europako Trail Gazers BID proiektuaren barruan egin ere. Aplikazioa nola erabili azaltzeko eta boluntarioen programa aurkezteko tailerra antolatu da. Turismo partzuergoaren ekimena da Plazaolako boluntarioen programa. Han parte hartzen dutenek bideko gorabeheren berri eman beharko dute. Boluntario izan nahi dutenek aplikazioa deskargatu beharko dute. Partzuergoak aplikazio hori esperimentalki erabiliko duten boluntarioen erregistroa sortuko du. Haien esperientziak jaso eta funtzionamendua aztertuta, ondoren aplikazio hori sareko beste espazio batzuetan ezartzeko aukera baloratuko dute.

GORABEHERAK GEOLOKALIZATU, ARGAZKIAK EGIN ETA DESKRIBATZEKO AUKERA EMATEN DU

Tailerraz

Osteguneko saioan, alde batetik, tresnaren aurkezpena egingen da, eta, bestetik, Plazaolako bide berean praktikatu dute. Aurreneko zatiak 45 minutuko iraupena izanen du. Plazaolari buruzko ideiak, esperientziak eta ekarpenak (egoera, gorabeherak, kezak eta abar) partekatuko dira. Ondoren, aplikazioa aurkeztuko da, oinarrizko erabilera erakutsiz eta kanpoan praktika bat eginez. Proba gisa, mugikorrean gorabeherak eta alertak erregistratuko dira, eta, amaitzeko, aplikazioa kudeatzen duen programan ikusi ahal izango dira Biltegian bertan. Saioan parte hartzeko deialdia, batez ere, Plazaolako bidea borondatez dagoeneko zaintzen duten edo egin nahi duten herritarrei, Plazaola inguruko udaletako eta mantentze lanetako brigadetako langileei eta lurraldeko natur eta kultura ondarea berreskuratzen lan egiten duten tokiko beste taldeei zuzenduta dago.



SAKANAKO MANKOMUNITAEA

Nahi adina konpost hartzeko

Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak jakinarazi duenez, konpost plantari esker konpost kantitate handia sortu du. Hori dela eta, konposta nahi duten guztiek Mank-ek Arbizon duen UtzubarEKOguneko bulegotik pasa beharko dute, nondik hartu behar den jakiteko. Mank-etik zakuak edo gurdia eramateko aholkatu dute.

Oposizioa egin ondoren, udalak bi garbitzaile berri ditu

Oposizio lehiaketa bidez, Arbizuko Udalak bi garbitzaile lanpostu bete ditu. Hautaketa prozesua despedituta, oposizio lehiaketako epaimahaiak hala erabakita, Mari Carmen Onda Berastegi eta Lidia Gartziandia Razkin Arbizuko Udalaren zerbitzuko garbiketako langile dira. Bi langileek D mailari dagokion lanpostuak beteko dituzte. Bien

egitekoa da udal eraikin eta instalazioetan sortzen diren beharrei erantzutea. Haien lan ordutegia zerbitzuaren beharretara egokitu eta egonen da une oro.

Arbizuko Udalak deitutako oposizioan parte hartu eta lanposturik gabe gelditu diren pertsonekin Arbizuko Udalak zere- rrenda egingen du, beti ere, prozesuan lortutako puntuazioa errespetatuz. Langileen baja, opor, baimen, lizentzia edo bestelako egoeretan ordezko izateko hots egingen lieke udalak.

DUELA 25 URTE...



Inauteriak, lehengo eran

1936ko estatu kolpeak eta ondorengo gerrak eta diktadurak inauteririk gabe utzi zuten Bakaiku. Herriko Euskara Batzordeak gogoak freskatu zituen eta 1997ko otsailaren 15eko arratsaldeko azken orduan kamarro beldurgarriak, atzera ere, Bakaikuko kaleetara atera ziren. "Kamarro txirri txarro" esanez zirikatatu zuen izan zen. Larunbat hartan bertan afari arrakastatsua izan zen elkartean.

Promesak eta bete gabeko konpromisoak

Horregatik, pentsiodunen mugimenduak larunbatean, 11:00etan, Irurtzongo plazan bilkura egingen du. Pentsio sistema publikoa aldarrikatu, Kontsumo Prezioen Indize errearen arabera eguneratzea eta bestelako aldarrikapenak kaleratuko dituzte

IRURTZUN /ALTSASU

Estatuko pentsiodunek protesta eguna deitu dute biharko. Atzera ere, pentsio duinen aldeko aldarrikapena kalera aterako dute. Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimendutik azaldu dutenez, biharko mobilizazioekin "beteko ez diren promesa eta konpromisoez gogaituta gaudela adieraziko dugu, pentsioek eta soldatek gero eta erosteko ahalmen handiagoa galtzen baitute, eta horrek pobretu egiten gaitu".

Mugimenduko bozeramaileek jakinarazi dutenez, Espainiako Gobernuak pentsioei aplikatutako konpentsazioa "bizitzaren kostuaren benetako igoera parekatetik oso urrun dago". Azaldu dutenez, %3ko eros ahalmena galdu dute, 1.300 euroko pentsio batean 291,2 euro erreformako KPIaren erreferentzia aplikatzean, KPI errearekin kalkulatu 837,2 eurokoa da galera. Mugimenduko kideek nabarmendu dutenez, "berriki onartutako erreformak eta urte honetarako iragartzen diren erreformek ez diete bakarrik huts egin pentsiodunei, pentsio publiko duin eta nahikoak bermatzen ez dituelako; langileek erretiroa gero eta beranduago hartu eta ikusiko dute urtetik urtera pentsioa txikiagoa izanen dela". Joan den



Sasoiak deituta Irurtzunen pentsio duinen alde egindako bilkura. ARTXIBOA

urteko, aurtengo eta hurrengo urteetako pentsioak KPI errearen arabera handitzea eskatu dute. "Gure aldarrikapenak bermatzeko 2021ean hartu ez diren erabakiak dagoeneko hartzea eskatzen dugu".

Hitzaldia

Pentsio duin eta publikoen aldeko aldarrikapenak lau urte bete ditu kalean. Ibilbide horretan "duintasuna defendatu dugu; bizi duina izateko pentsio eta soldata duinak, pentsio duinak behar dira". Horrekin batera, pentsio

duinen aldeko mugimenduak elkartasuna sustatu du: "bazter-tuen dauden pentsiodunekiko, emakumezko pentsiodunekiko eta alargunekiko, lan ezegonkorra eta gaizki ordainduta dituzten langileekiko, esklabu bihurtutako migratzaileekiko..." Sakanako pentsiodunen mugimenduak antolatutako hitzaldian, Bizkaiko pentsiodunen mugimenduko kide Jon Fanok eta Andrea Uñak horiek guztiak eta gehiago izanen dituzte hizpide, asteazkenean, 18:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean.

Torturatuaren sareak, aurkezteko, ekitaldia antolatu du

Nafarroako Torturatuaren Sarea elkarte berriak bere burua eza-gutzera emanen du Berriozarko musika eskolan bihar. Elkarte horren helburuak dira, alde batetik, azken hamarkadetan izandako torturatu kasuak argitzea da. Bestetik, torturatuak ez zaien egia, justizia, aitortza eta erreparazioa exijitzea, eta, azkenik, berriz horrelakorik ez errepika-

tzeko bermea lortzea. Tortura eta tratatu txarrak jasan dituzten nafarrei 10:00etarako joatera gonbidatu dituzte. Elkarrean bilera pribatua egingen dute lehen-lehenik.

Elkartea eratu ondoren, eguerdian ekitaldi publikoa egingen dute bere kideek. Han torturatuak izanen diren makina bat nafar izanen dira. Ekitaldira hainbat politika, sindikalgintza eta erakundeetako eragile politiko, sindikal eta instituzional gonbidatu dituzte.

Tortura salatzeke bi kontzentrazio egingen dira Altsasun

Joxe Arregi torturen ondorioz hil zen 1981eko otsailaren 13an, eta, torturaren kontrako eguna da geroztik. Hori dela eta, igandean tortura salatzeke bi deialdi egin dira Altsasun. Batetik, Sakanako Sortuk eta Ernaik, 13:00etan. Bestetik, errepresioaren kontrako Ospa! mugimenduak, 19:00etan. Bi bilkurak udaletxe parean izanen dira.

Parte hartze aurrekontuetarako botoa emateko aukera

Asteazkenean (11:00-13:00) udaletxean; ostiralean (18:00-20:00) eta larunbatean (11:00-13:00) plazan

IRURTZUN

Hamaikagarren parte hartze aurrekontuetan Irurtzundarrek udalak 70.000 euro zertara bideratu erabaki behar dute: hilerrri pareko kaleko zorua berritu, Larrazpiko azpiegiturak berritu, mendiko ibilbidea homologatu eta berria sortu edo festetan barrakak jartzen diren tokiko zorua berritzea.

Botoa 16 urtetik gorakoek eman dezakete, beti ere, beraien burua agiriren batekin identifikatuta. Aurrez aurre botoa emateko hiru aukera izanen dira: asteazkenean,

11:00etatik 13:00etara udaletxean; ostiralean, 18:00etatik 20:00etara, osasun etxeko arkupeetan eta larunbatean, 11:00etatik 13:00etara, osasun etxeko arkupeetan. Botoa emateko beste aukera da preparirurtzun@gmail.com e-posta helbidearen botoa ematea, harekin batera izen-abizenak eta nortasun agiriaren zenbakia idatzi behar dira. Hilaren 19ra arteko epea dago iritzia emateko. Telefono mugikorrareko *Irurtzun* aplikazioaren bidez botoa emateko aukera dago, epea igandean despedituko da.

Oinezkoendako ziurragoak izateko, bi espaloï zati egokituta

Irurtzungo Udalak San Martin kalean eta Bi Ahizpe kalean dauden bi zebra bide egokitu ditu (5.579 euro, BEZ kanpo). Horretarako, haien parean dauden espaloïak handitu egin ditu eta luzeran lau metro eta zabaleran bost metro irabazi dute. Bi lanekin udalak Irurtzun "seguruagoa, atsegina eta erosoagoa izatea" lortu nahi du.



Berritutako espaloïetako bat. UTZITAKOIA

Argiteria berrituta, udalak beste lan batzuk egin nahi ditu

Abenduko uholdeak eragindako kaletak konpondu, herri sarrerako kaleko zorua eta udaletzeko teilatua berritu

IRAÑETA

Ainhoa Beraza Maiza alkateak gogorarazi du herri gehienean LED argiak 2020an jarri zituztela. Horretarako, Nafarroako Gobernuaren despopulazioari aurre egiteko eta pandemiak eragindako gastuei aurre egiteko emandako dirulaguntzak baliatu zituen, 19.518 euro gutzira. "Kaletxo bat falta zen, eta joan den urtean jarri genuen". Eta aldaketa eginda zutenean, jaso zuten horretarako 2017an eskatutako dirulaguntza. Erreserban gelditu zen Irañetako



Neskatoak San Gregori kalean. ARTXIBOA

Bestelako argindar eta telekomunikazio ereduak

Gaur, 18:30ean, udaletxean Izarkom eta Goinener kooperatibetako ordezkariak beraien lana eta ereduak zein den azalduko dute. Biak udalaren telekomunikazio eta argindar hornitzaileak dira

BAKAIKU

Bakaikuko Udala 2018tik da Goinener kooperatibako bazkide eta herriko argiteria publikoa eta eraikinetako argindarra beraiekin kontratatu du. Goinener energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatiba bat da. Gaur egun, argindarra sortzen eta banatzen ari da. Bere helburua energia subiranotasuna berreskuratzea da. Bestetik, Bakaikuko Udala 2020tik Izarkom kooperatibako bazkide da eta internet eta telefono zerbitzuak beraiekin kontratatuta ditu. Telekomunikazio burujabetzaren alde elkarrekin lanean jarraitzeko asmoa dute Bakaikuko Udalak eta Izarkom-eko arduradunek, eta herrian dauden gabezia eta aukeren azterketa egitekotan geratu dira. Izan ere, Izarkomen helburua telekomunikazio burujabetza da, hau da, herri gisa beharrezkoak diren telekomunikazio azpiegitura, zerbitzu eta baliabideak eskuratzea.



Izarkom-eko arduraduna udaletxean.

Bateko eta besteko ordezkariak gaur Bakaikuko udaletxean izanen dira, argindarraren eta telefono/Interneten inguruan dituzten proposamen eta ereduak azaltzera. Bakaikuko Udaletik azaldu dutenez, "argindar hor-

nidurarendako eta internet/telefonoarendako oso alternatiba interesgarriak direla uste dugu". Horregatik, bakaikuar guztiak aurkezpena gerturatu eta lehen eskutik informazioa jasotzera animatu dituzte.

Ezaugarriak

Bi kooperatibek Ordizian dute egoitza. "Edozein duda edo arazoren aurrean laguntzeko prest daude beti, esaterako: etxean kontsumitzen duzun argindarraren estudioa egiten dute faktura jaisteko, egitura berriak sortzeko laguntza eman, aholkuak eman, eta abar". Biek "herritarrak, herriak eta komunitatea erdigunean jartzen dute". Gainera, "irabazi asmorik gabekoak dira. Etekinak bere helburuak lortzeko beharrezkoak dituzten proiektutan berrinbertitzen dituzte". Bien beste bereizgarri bat langileen lan baldintzak errespetatzea da. Beste gizarte eredu baten alde lan egiten dute, euskaraz.

proiektua, eta beste udal batzuek uko egitean irintarrei eman zien dirulaguntza foru administrazioak. Baina ordurako lanak eginak zeuden eta diru hura ez zen Irañetara iritsi.

Bestalde, abenduko uholdeen ondorioz, "zubian pareta bat pixka bat mugitu du urak. Eta Madalen haitzen iparraldean dagoen bidean zuloak egin ditu urak. Konponketzeko dirulaguntza eskatuko dugu". Azkenik, Irañetako Udalak bi lan egin nahiko lituzke. Batetik, herri sarrerako kaleko zorua konpondu. Alkateak esan duenez, "bidegurutzetik gertu asfalto hondatzen ari da". Bestetik, udaletzeko teilatuak berritzeko premia larria du. "Guztia berritu zenean teilatua ez zen berritu eta orain itajurak daude. Pena da dena itajurengatik hondatzea".

Konponketak egin ziren Arbizuko kale Nagusian

Karrika nagusia 2019an berritu ondoren, atzera ere, lan hura egin zuen enpresako langileak kalera bueltatu ziren joan den astean. Lanak egin ondoren, zenbait akats atzeman zituen Arbizuko Udalak kale Nagusiko zoruan eta lanak egin zituen enpresari haiek konpontzeko eskatu zion. Besteak beste, lurpeko sareetara iristeko metalezko erregistro tapen inguruan porlana hondatuta zegoen eta hura konpondu dute langileek. Lanak aste bat inguru iraun zuten eta bitarte horretan langileek segurtasunez lan egiteko aukera izan zezaten ibilgailuen trafikoa desbideratze txikiak egin ziren kalean bertan.

Osasun publikoaren aldeko giza katea eginen dute Bakaikun

Pittea okerrera egiten ari zen osasun sistema publikoa egoera okerragoan gelditu da COVID-19 gaitzak eragindako pandemiarekin, eta hark ekarri duen guztiarekin. Horregatik, bakaikuarrrak osasun arreta duin eta publikoaren alde egitera hots egin dituzte larunbat eguerdirako. Hitzordua 12:00etan jarri dute, Santio plazan. Medikuntza kontsulta hartzen duen udaletxea giza kate batekin inguratzea da deitzaileek duten asmoa. Horrela, osasungintza publikoari babesa adierazi nahi diote. Deitzaileek gaztigatu dutenez, giza katea pertsonen arteko distantzia eta osasun neurriak errespetatuz eginen dute.



Bakaikuko kintoak herri guztitik pasa ziren eskean.



Kinto bakaikuarrak eskerako saskiekin eta etxajua botatzeko oholarekin.

Joan dira kinto egunak

Kitto kinto ospakizunak. Goiztiarrenak olaztiarrak izan ziren. Ostiralean Bakaiku, Iturmendi, Urdiain eta Ziordikoeak bat egin zuten ospakizunarekin. Kinto altsasuarrek larunbaten ekin zioten ospakizunari, asteazkenera arte luzatu zena



Iturmendiko kinto segizioaren talde argazkia.



Altsasuko kintoek bost egunetan plazan zortzikoak dantzatu dituzte.



Ziordin etxajuekin festa iragarri zuten.



Iturmendin eskatu eta eskaini zuten.



Kinto kuadrilla ederra osatu dute aurten Urdiainen.



Iturmendin dirua eman eta pastak jaso.



Urdiainen binaka dantzatu zuten.



Kinta olaztiarrak.



Binakako zortzikoa ederra izan zen.



Altsasuko kintoak festarako jantzita. KIKI ASENSIO



Olatzagutiko kinto taldea. KIKI ASENSIO



Kinto eskean etena egin zuten talde argazkia egiteko.



Txatarrez jantzita Etxarri Aranazko plazan. @SAKANA_EUS

Txatar egunak iritsi dira Etxarri Aranatzera

Ihote ospakizunak atzo hasi ziren, eta puskak bildu zituzten. Eta hurrengo bi ostegunetan segida izanen dute. Aurrenekoan puskak biltzera eta hurrengoan zigorrak eskutan, jendea berotzeko prest izanen dira. 19:00etan aterako dira kalera

ETXARRI ARANATZ

Astearteihoterako edo garizumaren aurreneko egunerako, hausterre eguna, hiru aste falta dira. Atzo, Gizakunderekin, etxarriarrek ihote ospakizunak abiatuko zituzten. Garai batean gizonen helduak ziren txatarraz jantzi eta herrian barna puska biltzea egiten zutenak, ondoren berendu-afariak egiteko. Atzo kintoak izan ziren eskean atera zirenak txatarrez jantzita, hau da, zaku eta trapu zaharrek. Etxarri Aranazko ihote egutegiko bigarren ospakizun eguna heldu den ostegunetan izanen da, hilak 17, Andrekunde. Egun horrekin, garai batean, emakumezkoak ateratzen ziren eskatzera. Heldu den astean, atzera ere, txatarrez jantzitako kintoak izanen dira eskean ariko direnak. Egun horrekin, batera, hainbat etxeetako emakumezkoak, edo lagun taldek, elkarrekin afaltzen dute. XX. mendeko 90eko hamarkadan emakumezkoendako herri afariak ere antolatu izan ziren.

Garikunden (otsailak 24) kintoak parean opatzen dituzten guztiak lasterka jarriko dituzte. Izan ere, zigorra eskuan, parean dituzten guztiak berotzeko asmoz aterako dira txatarrak. Garai batean haizez betetako maskuriak erabiltzen zituzten jotzeko, eta suko hautsa zikintzeko. Aspaldi borrokako eguna zen Garikunde; urte guztiko gorabeherak konpontzeko baliatu zitezkeen, kolpeak debekatuta zeuden eta aurkaria lurraren kontra eustean zetzan borroka.

Etxarri Aranazko ihote ospakizunek beste bi egun dituzte. Zaldunihote. Berez, igandean ospatzen zen haur ihotea zen garai batean, eta hola berreskuratzen zen. Baina 2019an etxarria-

OTSAILAREN 26AN ZALDUNIHOTE IZANEN DA. OSPAKIZUNAK ASTEARTEIHOTEAN DESPEDITUKO DIRA

rrek larunbatera pasa zuten, herri-ihotea bihurtu. Negu akaberako ospakizunak astearteihotean despedituko da. Lagun koa-drillak mozoratu eta afaltzera elkartuko dira.

Jatorria

Ihote ospakizunak hiru aste lehenago ospatzearen jatorria Eliza katolikoak herritarren bizia markatzen zuen garaian dago. Garizumak, Aste Santu aurreko berrogei egunak, garrantzi handia du Elizan, eta penitentzia eta barau garaia zen. Horregatik, herritarrek garizuma aurreko egunak gogoz disfrutatzen baliatzen zituzten. Horretarako, puska biltzeak, txatarrez jantzi, musika, dantza eta abar egiten zituzten. Garizuma behar bezala prestatzeko haren aurreko hiru igandek hartu zituen Elizak. Hori ikusita, etxarriarrek igande horien aurreko ostegunetan festa egiten hasi ziren. Horrela aurreratzen zen ihote egutegia Etxarri Aranatzera.



Urteurren programazioaren aurkezpenean herriko musikariak ere izan ziren. EGA

EGARri buruzko dokumentala garagarrilerako izanen da

Materiala duenak eta dokumentalerako eman nahi duenak gazteetxarri@gmail.com e-postara bidal dezake

ETXARRI ARANATZ

Lau hamarkada bete ditu Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak (EGA), eta ibilbide horren berri jasoko duen dokumentala prestatzen ari dira gazte erakunde kideak. Azaldu dutenez, "dokumentala batez ee 40 urte hoiten gazte asanbladatik pasa dien zenbeit kideen testigantzetan oinarritutakue. Ezizuekue da kide guzien testigantzak biltzie, beye generaziyo guzien ordezkayen testigantzak biltzen gailte biare". Ikus-entzunezkoa egiteko "iye-ye bi urte yamaten ttugu material bilketan. Ta egiye esan jendian erantzune oso ona izendua, ta izeten seitzen dau. Argazki ta bidio mordue bildu diau guaikos" azaldu dute Etxarri Aranazko Gazte Asanbladakoek. Alde guzietara ere, "Etxarri Aranazko Gazte Asanbladakoekin lotutako yozin material beti de ongi etorriye izenen da dokumentalien sartzeko". Halakorik duenak eta dokumentalerako eman nahi duenak gazte asanbladako kideren bati jakinarazi eta "disko gorra utziko lakioke, o norbeit tek nehi izeneskio, gaztetxe ko korreo elektronikua bieltzeko aukera daka: gazteetxarri@gmail.com".

Aurkezpenarekin pozik

Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak aurten 40 urte eta gazte txeak 15 urte egiten dituztela eta, apirila bitarteko egitaraua aurkeztu zuten ilbeltzaren 21ean. Etxarri Aranazko Gazte Asan-

bladako kideek esan dutenez, "aurkezpena oso ongi fan zan. Izan e, jende asko jeitxi zan gaztetxia, adin desberdiñetakuek geñas (heldubek, gaztie, haurrek...) ta aurkeztutako egitarauk ta dokumentalan trailerrak jendian artien oso harrera ona ureittu zebien".

Apirila bitarteko egitaraua lotuta badute ere, urte guztirako plangintza osatzea dute buruan Etxarri Aranazko Gazte Asanbladako kideek, baina kexu dira: "egun bizi diaun osasun egoeran aitzakipien jartzen ai dien lege ta murrizketak egitarau erabat lotzia asko zeiltzen dau. Hale de, meyetzako ta garagarrilleko dinamike ta hainbet ekimen lotzen hasik gaude, urte guzien barna hainbet planteamendu yonen die". Bakarren batek Etxarri Aranazko Gazte Asanbladari proposamen bat egin nahi izanez gero "yozeinek asanbladeta fan o asanbladako kidiei planteamendu o hainbet ideia yamatie gonbietzen ttugu, idea guziek ongi etorriyek die". Izan ere, EGAKo kideen iritzi, "urte bereziyontan herriyan parte hartzie ta inplikeziyue biherreskue izenkua, beita hemendik aurria dee".

EGA-KO BELAUNALDI GUZTIETAKO ORDEZKARIEN LEKUKOTZAK JASOKO DITUZTE

Amiantoa, minbizia eta zigorra Magotteauxi

Langile ohi bati biriketako minbizia diagnostikatu zioten 2011n, eta biriketako lesio berriak 2020ko irailean. Etxean oxigenoterapiarekin dago. Adavanen iritziz, "lantokian jatorria duen minbizia ikustaraziz enpresen prebentzio neurriak hobetzen dira"

URDIAIN

Iruñeko Lan Arloko 4 zenbakiko epaileak Magotteau Navarra SA enpresak 320.674 euro (eta interesak) ordaintzera zigortu du. Diru kopuru hori bere langile ohi batek jasoko du. Hari 2011n biriketako adenocarcinoma (minbizia) diagnostikatu zioten eta disnea handiko biriketako lesio

berriak 2020ko irailean. Ordutik etxeko oxigenoterapiarekin tratua dago, arnas hartzeko zailtasunak gero eta handiagoak zituelako.

Langileari gaixotasun arruntagatik ezintasun absolutua eman zioten 2007an. Gizarte Segurantzaren Nazio Institutuak lanbide gaixotasunaren ondoriozko era-

bateko ezintasuna aitortu zion 2019ko garilean, biriketako adenocarcinoma amiantoaren eraginpean egotearekin bateragarria delako eta kausalitate irizpidea betetzen duelako, gaixo dagoen langilearen tabako aurrekaria edozein dela ere.

Magotteauxek ez zien langileei amiantoak zuen arriskuaren

berri eman, ez zien arnas babe-sik eman langileei, ez zitzairen azterketa mediko espezifikorik egin Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren arabera, gaixoak 12 urtez amiantoaren eraginpean egon zen. Adavaneko, amiantoaren biktimen defentsa eta laguntzarako elkarteko kideek jakinarazi dutenez, "indarrean dagoen Segurtasun eta Higienari buruzko legeria luzea ez betetzeagatik enpresak dituen erantzukizunak saihesten saiatuz, enpresak argudiatu zuen langilearen biriketako minbizia gaixoarenekin erretzeko ohituratik eratorria dela, eta gaixotasuna ez datorrela amiantotik". Adavaneko kideek horrela laburbildu dute epaia: "egiaztatuta geratu da enpresak ez duela bete, kalte bat eragin duela eta kausalitate harremana

duela; beraz, demanda baietsi da, eta Magotteaux Navarra SA kondenatu dute 320.674 euro gehi interesak ordaintzera".

Adavanekoek zabaldu dutenez, gaixotutako gizonetakoak labezain, moldeekin eta balio aniztetako arloetan lan egin zuen 1974 eta 2007 artean. Labeetan eta piezen moldeetan amiantoa zuten zatiak zueden. Adavanekoek iritziz "jatorri profesionaleko minbiziaren epidemia ezkutatzearekin bukatzeko, gizarte osoa inplikatzeko garaia iritsi da". Europako Batzordeak eta Segurtasun eta Osasun Agentziak zabaldu duenez, "jatorri profesionaleko minbizia laneko heriotzaren kausa nagusia da" Hala jakinarazi dute Adavanekoek. Elkartetik nabarmendu dutenez, "minbizi mota hori bistaratzeari esker, prebentzio-neurriak hobetuko dira".

Euskarazko irakurzaletasuna sustatzen jakiteko

Urdiainen hitzaldia izanen da asteartean, 17:00etatik 19:00etara. Olatzagutian beste bat izanen da martxoan

URDIAIN / OLATZAGUTIA

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak haurren eta gazteen euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko hitzaldi-lantegiak antolatu ditu heldu den asterako. Euskara Zerbitzutik

azaldu dutenez, *Zer egin haurrek euskaraz gehiago irakur dezaten?* hitzaldi-lantegiko saioak gurasoei, irakasleei, hezitzaileei, zaintzaileei eta bitartekariei edo haur eta gazte literatura gustuko dutenei zuzenduta daude.

Urdiainek saioa hartuko du asteartean, 17:00etatik 19:00etara, auzoan. Euskarazko saio hori Galtzagorri elkarteko Intza Alkainek emanen du. Euskara Zerbitzua Etxarrenen beste saio bat egitekoa zen ostegunean, baina bertan behera gelditu da. Saio hori gaztelaniaz egingen da martxo akaberan, baina Olatzagutian, eta Galtzagorri elkarteko kide batek gidatuko du. Lantegian parte hartzeko alde aurretik izena eman beharra dago euskara1@sakana-mank.eus helbidean.

Cl@ve eskuratzeko aukera dago orain Altsasun

Administrazio publikoekin mantentutako harremanetan identifikazio elektronikorako sistema da Cl@ve. Sistema horren bidez herritarrek administrazio publikoen zerbitzuetara Internet bidez sartzeko aukera dute. Sistemaren izena eman beharra dago sarbide datuak eskuratzeko. Altsasuko Udalak jakinarazi duenez, Gure Etxea eraikinean

dagoen udal erregistroan Cl@ve eskuratzeko aukera dago asteazkenaz geroztik. Cl@ve identifikazio elektronikoko sistema eskatzeko herritarrek identifikazio agiri bat beharko da (nortasun agiria, pasaporte edo atzeritarren identifikazio txartela). Horrekin batera, telefono mugikor baten zenbakia eman behar da. Cl@ve bakoitza telefono zenbaki bakar batera lotu daiteke bakar-bakarrik. Azkenik, interesatuek beraien e-posta helbide bat eman behar du.



MINZAKIDE

Altxorak euskaraz ezagutu

Ilbeltzeko azken igande goiza tokiak ezagutzeko eta euskaraz hitz egiteko eskaintza egin zuen Sakanako Mintzakidek, eta 20 sakandar elkartu ziren. Sarabe, Iruritako gaztelua, San Migel ermita eta Aitziber ermita ezagutu zituzten. Mintzakide programa euskara praktikatzeko espazioak bermatzea da. Hizkuntzaren erabilerari bultzada emateko gaur egun Sakanan hamaika talde daude. Euskara ikasten ari diren eta hizkuntza ez erabiltzeagatik hizketatzea

kostatzen zaion jendea elkartzen du. Hiruzpalau pertsonen osatutako talde txikiak dira eta haiekin batera euskara pixka bat gehiago dakien beste kide bat izaten da. Talde bakoitzak erabakitzen du non eta noiz elkartuko diren. Maiztasuna astean behingoa da eta euskara praktikatzeko topaketek ordu bat irauten dute. Izena emateko 600 482 024 telefono zenbakira hots egin edo Whatsapp mezua bidali dezakete. Izen ematea doan da.

1. AUTONOMIKOA GIZON.

2. FASEA. 5. JARDUNALDIKO EMAITZA
Univ.de Navarra - Lagun Artea **1-0**

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO JAITSIERA	
1 Zaramonza	35
9 Lagun Artea	22

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:00 Lagun Artea - Artajonés (Zelai Berr)

Lagun Artea puntuak lortzera

Mailari eusteko borrokan, jokoan dauden hiru puntuak lortu nahi ditu Lagun Arteak.

1. AUTONOMIKOA EMAK.

18. JARDUNALDIKO EMAITZA
Amigó - Altsasu **15-0**

SAILKAPENA

1. AUTONOMIKOKO EMAK. 2. MULTZOA	
1 Mulier	49
10 Altsasu	1

HURRENGO JARDUNALDIA

ZEHAZTU GABE

Gazte Berriak - Altsasu (Antsoain)

Altsasuk bigarren faseari ekingo dio

Lehen fasea ahaztu eta bigarrenaren hobe aritzea espero du Altsasuk.

FUTBOL PREFERENTEA

20. JARDUNALDIKO EMAITZA
Etxarri Aranatz - Arenas **1-0**

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA	
1 Injerto	47
14 Etxarri Aranatz	19

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:00 Amaya - Etxarri (Amaya)

Etxarri, beheko postuetatik ateratzera

Arenasen kontra irabazi eta gero, Amayatik beste hiru puntu ekarri nahi ditu Etxarrik.

FUTBOL ERREGIONALA

18. JARDUNALDIKO EMAITZA
Altsasu - Arrotxapea **4-0**

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 3. MULTZOA	
1 Aurrera	44
2 Altsasu	37

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

18:30 Amaya B - Altsasu (Amaya)

Altsasu, bidetik atera gabe

Irabaztera ohitu da Altsasu. Ea Amayaren kontra ildo beretik jarraitzen duen.

Goian eta behean, emozioa ziurtatuta

PILOTA Binakako ligaxka despeditzeko bi jardunaldiren faltan, guztia erabakitzeke dago. Goialdean lau bikote daude zortzina puntura berdinduta, Elezkanok-Zabaleta eta Altuna-Martija tartean, eta Ezkurdiak-Tolosak play-offetan sailkatzeko aukera dute

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Binakako Txapelketako bigarren itzulua hasi zenetik, kontu berberarekin dabil katedra: txapelketa zein estu dagoen, agian azken urteetako parekoena izango dela, emozioak azken ordura arte iraungo duela... Ordutik, ia astero errepikatzen den leloa da. Egia borobila delako.

Txapelketa bitan banatuta dagoela esan daiteke. Goialdean, lau bikote daude zortzina punturakin: Irribarria-Rezusta, Elezkanok II.a-Zabaleta, Laso-Imaz eta Altuna III.a-Martija. Lehen bi postuetan sailkatzeko lehia gogorra dute, bi postu horiek zuzenean finalerdietara sailkatzea ahalbideratuko dietelako. Peña II.a-Albisuk bost puntu dituzte, Urrutikoetxea-Arangurenekin eta Jaka-Mariezkurrena II.ak launa puntu eta Ezkurdiak-Tolosak hiru puntu. Multzo honetan, azken bi postuetan ez geratzea da erronka, azken bi bikoteak ez baitira finalerdietako play-offetarako



Zabaletak eta Elezkanok Peñaren eta Albisuren kontra bere onena eman zuten. ASPE

sailkatuko. Beraz, bai goian eta bai behean, lehia ederra espero da azken bi jardunaldi hauetan.

Asteburuan hamahirugarren jardunaldia dago jokoan. Altuna III.ak eta Martijak Peña II.a eta Albisu izanen dituzte aurkari

Idiazabalen. Altuna eta Martija maila oso onean daude eta lehen bi postuetan sailkatzeko, irabaztera aterako dira. Peña II.a eta Albisu galtzetik datoz, baina egoerari buelta eman nahi diote, eta partida estua espero da.

Asier Llamas, beste urte bat Xotaren ateko zaindaria

ARETO FUTBOLA Atezain irurtzundarrak 2023ra arte jarraituko du talde berdeko atea defendatzen

Osasuna Magna Xota eta Asier Llamas atezaina akordiora iritsi dira eta atezain irurtzundarrak beste urte batez jarraituko du talde berdearen atea defendatzen, 2023 urtera arte. Bi aldeak kontentatu daude kontratua beste urte batez luzatu izanagatik. "Oso pozik nago etxeko taldean beste urte batez jarraituko dudalako, nire familiaz eta horrenbeste maite dudan jendeaz inguratuta. Hemen disfrutatzen jarraituko dugu, zaleei pozaren bat eskaintzen" azaldu du talde berdeko bigarren kapitain den Asier Lla-

masek. Zaleak izan ditu gogoan. "Orain arteko ilusio berbera izaten jarrai dezatela, eta Xotaren proiektuan gehitzen jarrai dezatela, proiektu ona delako. Gutxika aurreko garai onetara itzuliko gara; agian hobeak biziko ditugu" gaineratu du. Beste urte batez kamiseta berdea janztea "oso handia" dela aitortu du.

Igandean Movistar Inter aurkari Osasuna Magna Xotak eta Movistar Interrek igandean Lehen Mailako Areto Futboleko hamabosgarren jardunaldiko partida



Asier Llamas atezaina, Xotaren kamisetarekin. XOTA

jokatuko dute Anaitasunan, 12:00etan. Osasun neurriak jarraituz, aforoaren %75 bete ahaliko da. Liderra Barça da (37 puntu), Xota seigarren postuan dago (19 puntu) eta Dani Saldise irurtzundarraren Inter Movistar

Hil ala biziko partidak

Larunbatean, Bilbon, Elezkanok eta Zabaletak Urrutikoetxearen eta Arangurenen kontra jokatuko dute. Bolada txarrari buelta eman eta bere onera itzuli dira egungo txapelkunak, Elezkanok eta Zabaleta. Beraiek dira faboritoak, baina Urrutikoetxea eta Aranguren azkeneko postuetatik ihes egiteko irabazi beharrean daude eta hil ala biziko partida izango da. Larunbatean ere, baina Iruñean, Ezkurdiak eta Tolosak beste final bat dute jokoan -kontua galdu dugu jada-, kasu honetan Jakaren eta Mariezkurrenaren kontra. Sailkapeneko behealdean dauden eta jokoan dagoen puntua ezinbestekoa duten bi bikoteen arteko lehia latza izango da Labritekoa. Irabaziz gero, Jakarekin eta Mariezkurrenarekin launa puntutara berdinduko lukete Ezkurdiak eta Tolosak eta play-offetarako sailkatzeko aukera izaten jarraituko lukete. Tentsio handia biziko da Labriten. Bukatzeko, igandean, Tafallan, Irribarriak eta Rezustak Laso eta Imaz izango dituzte aurkari, sailkapeneko goialdeko lehia estuan. Bihotzeko emateko moduko beste jardunaldi baten aurrean gaude. Nork eskaintzen du gehiago?

Promozioko Binakakoan, Alberdi II.ak Joanes Bakaikoaren tokia hartuko du. Elizegirekin batera, Egiguren eta Untoria ordezkatzeko duen Ladis Galarzaren kontra jokatu dute.

hamargarren (16 puntu). Jokoan dauden hiru puntuak ezinbestekoak dira bi taldeendako, Espainiako Kopa jokatu ahal izateko lehen zortzi taldeen artean sailkatu beharra dutelako. Beraz, lehia bizia espero da.



Neska-mutikoak, Altsasu Kirol Elkarteko 2021/2022 denboraldiko aurkezpenaren. Mank-eko Kirol Zerbitzuak 14 urtetik gorako sakandarrei zuzendu die inkesta.

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Azken egunetan sare sozialetan eta bestelako euskarrietan galdetegi bat betetzera gonbidatu dituzte 14 urtetik gorako sakandarrak. Sakanako Mankomunitateko Ariketa Fisiko eta Kirol Zerbitzutik eta Kattalingune Nafarroako Gobernuaren LGTBI+ informazio eta arretarako zerbitzu publikotik etorri da gonbidapena. Izan ere, bi zerbitzu horiek, elkarlanean, Sakanako kirol alorrean LGTBI+ errealitatea nola bizi dugun ikertu nahi dute. Sakanako kirol munduan LGTBI+ kolektiboaren nolabaiteko diagnostikoa egin. Horretarako, galdetegi edo inkesta bat betetzea eskatu diete 14 urtetik gorako sakandarrei. Galdetegia sare sozialetan edo Sakanako Mankomunitateko webgunean dago eskuragarri. Sustatzaileek galdetegia zintzotasunez erantzutea eskertu dute. Galdetegia anonimoa da, 10-15 minutu behar dira betetzeko eta inkesta betetzeko azken eguna otsailaren 23a izanen da.

Galdetegiaren hasieran, LGTBI+ siglen esan nahia ematen da, hau da, lesbiana, gay, transexual, bisexual, intersexual eta LGTBI siglekin identifikatzen ez diren eta arauzkoak ez diren sexu-identitate, orientazio eta adierazteko modu guztiak. Sexu eta genero aniztasuna, finean. LGTBI+ kolektiboko kideek sarritan gorroto, gaitzespen eta diskriminazioa sufritzen dute, LGTBI+fobia.

Sakanako kirol munduan LGTBI+ komunitatearen errealitatea jakin nahi da

KIROLDEGIA Mank-eko Kirol Zerbitzuak eta Kattalingune zerbitzuak kirolean LGTBI+ komunitatearen errealitatea nola bizi den ikertzeko galdetegia luzatu diete 14 urtetik gorako sakandarrei. Ondoren, diagnostia egin eta sentsibilizazio bideo bat egingo dute

Helburuak

Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak aipatu duenez, Kattalingune Nafarroako Gobernuaren LGTBI+ informazio eta arretarako zerbitzua Sakanan dagoela aprobetxatuz jaiotzen ekimena. "Kattalingune zerbitzua Sakanan ere eskaintzen denez, eta beraien laguntzarekin eta gomendioarekin garrantzitsua iruditu zaigu Sakanan gai hau lantzea. Izan ere historikoki kirola gizonen menpeko alorra izan da urte luzez eta berezitasun batzuk bakarrik dituzten pertsonen egin ahal izan dute, mas-

"LGTBI+ KOMUNITATEAK HEMEN KIROLA EGITEA NOLA BIZI DUEN JAKIN NAHI DUGU" AMAIA GERRIKAGOITIA

kulinitate hegemonikoa zutenak. Honek esan nahi du kirolean heterosexualitatea eta garapen fisikoa landu dela batez ere, eta afektibitate gutxi. Guk pentsatzen dugu Sakanan kirolak anitzagoa izan behar duela. Ildo honetan, LGTBI+ kolektiboa gehiago ezagutu nahi dugu, eta jakin nahi dugu beraiek nola bizi duten hemen kirola egitea, diskriminazioz jasotzen ote duten. Hala gertatzen bada, larria izateaz gain, pertsona asko gelditu daitezkelako ariketa fisikoak eta kirolak ematen duen osasun eta ongizate aukera hori gabe. Mankomunitatean gure helburua ahalik eta herritar gehienengana iristea da, eta bereziki behar gehien duten haiengana. Horregatik sortu zen ekimen hau" azaldu du teknikariak.

Gerrikagoitiak gaineratu du gizarte aurreratuetan aldaketak

izan direla, "baina oraindik kirolak gizonaren nagusitasunaren oinarri nagusietako bat izaten jarraitzen du. Emakumeak gero eta gehiago parte hartzen ari gara, baina asko falta da berdintasun batera iristeko. Eta zer esanik ez LGTBI+ kolektiboan. Kirolean homosexualitatearen errefusa ematen da sarritan, eta arlo horretan lan asko dago egiteko".

Bideoa

Galdetegiarekin Sakanan LGTBI+ kolektiboaren errealitate ezagutu nahi da. "Galdera asko

DIAGNOSIA ETA GERO, KIROL MUNDURA BIDERATUTAKO SENSIBILIZAZIO BIDEOA EGINGO DUTE

dira, kirolaren ingurukoak gehienak. Esaterako, ea kirol talde, partida eta bestelakoetan homofobia kasurik bizi edo ikusi duzun, kolektiboari buruz dauzuden aurreiritziak eta beste hamaika galdera. Gai honetan Sakanan dagoen errealitatea ezagutu nahi dugu, diagnostiko txiki bat egin, eta jasotakoarekin sentsibilizazio bideo bat egiteko. Uztailearen 19an kirolean LGTBI+fobiaren kontrako eguna da, eta data hori erabiliko dugu ekimen hau bulkatzeko" gaineratu du kirol teknikariak.

Kirolek abiatuta, nolabait gizarte guztira heldu nahi da. "Berdintasun Zerbitzuko plan estrategikoan ere jasotzen da kirolaren arloan berdintasuna landu behar dela, baita ere LGTBI+ kolektiboarekin lana egin behar dela. Beraz, plan estrategikoak berak eraman gaitu elkarlan hau egitera eta ekimena sustatzera. Dena den, arlo guztietan landu beharreko gaia da hau, hezkuntza, kirola, kultura... guztietan. Kirol arloan berdintasuna lantzen da, baina LGTBI+ kolektiboaren inguruko errealitatea ez, eta beharra ikusten zen" nabarmendu du.

Esperientzia pilotua

Kattalingunetik Kirol Zerbitzuko ekimena ongi hartu dutela adierazi du Gerrikagoitiak. "Ongi hartu dute. Gurea esperientzia pilotu horietako bat izango da, agian gero beste udal edo entitate batzuetara zabaltzeko. Ea zein emaitza dauzkagun. Positiboa izatea espero dugu" esperatu du teknikariak.

Inkestako datuak jasota, haiek ongi aztertu eta diagnostiko bat egitea da asmoa, LGTBI+ komunitatearen inguruan Sakanan zein sentsibilizazio dagoen ikustea, zein den egoera, eta jarrera desegokiak topatzen badira, haiei nola aurre egin aztertu. "Diagnostikoa egin ondoren lana aurkeztuko dugu. Sakanan LGTBI-aren inguruan nolako jarrera dugun ikusiko dugu, Sakanako argazkitxo bat egingo dugu. Ondoren, jasotakoarekin kirol mundura bideratutako sentsibilizazio bideo bat egin nahi dugu. Asmoa da taldeetako ordezkariaren bat agertzea, irakasleren bat, partaideak, kirolariak..." azaldu du Gerrikagoitiak. Horregatik, sakandar guztiak aipatu inkesta betetzera animatu ditu.

Iruñean, beste metro bat urrutirago

DISKO JAURTIKETA June Kintana Larraza disko jaurtitzailerak bakaikuarrak ibeltzaren 22an Leonen egindako jaurtiketa (52:34 m) metro batean hobetu zuen (53:56 m) igandean Larrabiden jokaturako Nafarroako Neguko Jaurtiketa Luzeen Txapelketan

Maidar Betelu Ganboa BAKAIKU

Aurtengoa orain arteko denboraldi hasierarik hoberena izan dela adierazi zuen June Kintana Larraza disko jaurtitzailerak bakaikuarrak ibeltzaren 22an Leongo atletismo kontrol batean aritu eta diskoarekin 52,34 metroko jaurtiketa egin eta gero. Sentsazioak onak zirela, eta igandean Larrabiden jokaturako Nafarroako Neguko Jaurtiketa Luzeen Txapelketan ildo beretik jarraitzea zen bere asmoa. Eta baita lortu ere, Grupompleo taldeko atletak etxean metro bat urrutirago bidali baitzuen diskoa, 53,56 metrora hain zuzen ere. Bigarren jaurtiketan lortu zuen marka, lehengo jaurtiketan falta egin eta gero. Beraz, progresioan jarraitzen du Nafarroako Neguko Jaurtiketa Luzeen Txapelketako txapelduna denak.

Bigarren bere lagun Andrea Alarcón sailkatu zen (51:97 m, Agrupación Atlética de Cataluña), eta hirugarren Grupompleo Pam-



June Larraza igandean Larrabiden, jaurtiketa egiteko prest. NAFARROAKO FEDERAZIOA

plona Atletico taldeko bere taldekide Angela Ferrera (38:28 m).

Espainiakoa

Nafarroako Txapelketa irabazita, June Kintanarendako neguko denboraldiko helburu nagusie-

netako bat otsailaren 19an Motrilen jokaturako den Espainiakoa Neguko Jaurtiketa Luzeen Txapelketa da. Ongi entrenatzen ari dela azaldu du bakaikuarrak, sentsazioak "onak" direla berretsi du, eta pozik dagoela.

Munduko txirrindulari onenak Sakanatik pasako dira berriz

TXIRRINDULARITZA Euskal Herriko Itzuliko bigarren etapa Arakildik sartuko da eta Lizarragako portua igoko du

Asteazkenean aurkeztu zuten aurtengo Euskal Herriko Itzuliko ibilbidea. Apirilaren 4tik 9ra jokaturako da eta sei etapa ikusgarri izango ditu. "Tour txiki bat" izango dela azaldu zuen Roberto Laiseka txirrindulari ohi eta egun lasterketako zuzendari teknikoa denak. Lehengo etapa Hondarribian jokaturako den 7,1 kilometroko erlojupekoa izango da eta bigarren etapa Leitzan hasi eta Vianan despedituko da (207,92 km), Sakanatik pasa eta gero. Etapa Zuarratetik helduko da Sakanara, apirilaren



Itzulia Sakanan, 2019an. ARTXIBOA

5ean. Ondoren, tropelak Etxarri Aranatzerraino egingo du aurrera, eta Lizarragako bidea hartuko du, Lizarragako portua igo eta Lizarraldean sartzeko. Laisekaren iritziz, "ihesaldiak osatzeko etapa egokia" izango da.

Itzuliko gainontzeko etapak ere gogorrak dira, Arrateko gainean despedituko den azken etapa bereziki, zazpi portu izango dituena. "Munduko txirrindulari onenak izango ditugu gure lasterketan" ziurtatu zuen Laisekak. Beste behin, izar handiak gertutik ikusteko aukera izango dugu. Itzulia 2019an pasa zen Sakanatik azken aldiz. Zumarragan hasitako etapa Lizarrustiko portutik iritsi zen Lizarragabengoara, eta Arbizutik aurrera eginez, txirrindulariek Arakil zeharkatu zuten Gorraizeko helmugara heltzeko bidean.

Maidar Betelu Ganboa (TURMENDI)

Burunda eta Aralar txirrindulari taldeetan trebatu ondoren, Josu Etxeberria Azpilikueta iturmendiarrak Rural Kutxa-Seguros RGA taldearekin egin zuen salto afizionatuen mailara. Joan zen urtean UCI Pro Team mailako izen bereko talde profesionalera igo zen, eta aurtun profesionalen mailako bere bigarren denboraldia hasi du, sentsazio onekin.

Afizionatuen mailatik profesional mailarako saltoa handia izan zen?

Bai. Afizionatuetatik profesionalera ezberdintasun handia dago. Profesionaletan dauden txirrindulari guztiek afizionatu mailan irabazi izan dute, eta hoberenen artean lehiatzea asko nabaritzen da.

Joan zen urtean La Marsellesa Sari Nagusia izan zen profesional mailako zure lehen lasterketa. Profesionalaren tentsio gehiagorekin lehiatzen dela eta abiadura handiagoa dela nabarmendu zenuen. Berdin pentsatzen jarraitzen duzu?

Bai, lehiatzeko modua ezberdina da. Bi polo daude: profesionalen mantso joaten garenean afizionatuetan baino mantsoago ibiltzen gara, baina azkar joaten garenean, aldiz, oso-oso azkar joaten gara. Profesionalen tentsioa handia da; mundu guztiak aurrera pasa nahi du posizio onak lortzeko, eta tropelean gure artean horrela lehiatzea askoz ere zailagoa da. Tentsio hori une esanguratsuetan nabaritzen da gehien.

2021ean Turkiako Itzulian eguneko ihesaldietako batean sartu zinen, Esloveniako Tourrean lan ederra egin zenuten eta Alentejoko Voltatik eta Britainia Handiko Turretik ere pozik etorri zinen. Zein balorazio egiten duzu?

Iaz denetik pasa zitzaidan: gauza onak egon ziren, une txarrak... asko ikasi nuen. Finean, ikasteko urtea izan zen. Egia da ihesaldietan sartzea lortu nuela, batez ere Turkian, nire aurreneko itzuli profesionala izan zenean, eta alde horretatik pozik. Hasieratik bukaerara nik uste salto bat eman nuela hoberantz. Horrekin geratzen naiz, asko ikasi nuela, eta horrek urte honetarako asko balioko didala.

Txirrindularitza denboraldia ibeltzaren 23an jokaturako Clásica Comunitat Valenciana klasikoarekin mustu zenuen, erorikoa tarteko.

Hango errepideak ez dira hemengoak bezalakoak. Eurria ari duenean oso arriskutsuak dira, ez

dutelako hemengoek bezainbat xurgatzen. Eurriagatik arriskutsua zegoen, eta talde osoa erori zen, txirrindulari bat izan ezik. Zorrite txarra izan genuen. Hori ere jokoaren parte da.

Ez zen erorketa larria izanen, berehala Mallorcako Challengean parte hartu zenuelako.

Ez, kolpe pixka bat hartu nuen bizkarrean eta listo. Ongi nago. Mallorcako Challengean aurreneko egunean ere erorikoa izan nuen. Tropelean talkaren bat egon zen, ni justu hor atzean nengoen eta berriz erortzea tokatu zitzaidan. Gauza horiek ez daude gure esku, ezin dituzu kontrolatu. Challengeko bigarren egunean ondo ikusi nuen nire burua; nire hoberenera heltzeko forma edo sasoi pixka bat falta zait, baina konfiantzarekin eta sentsazio onekin ikusten dut nire burua.

Zure egutegia itxita dago? Zein da aurtengo helburua?

Egutegi osoa zein izango den ez dakigu oraindik. Otsailean etxean entrenatuko dut. Martxoaren 13an Portugalen hasiko naiz, eta gero Italiara joango gara klasiko batzuk jokatzera, ea nola sentitzen naizen. Horren arabera egutegia prestatuko dugu, nire hoberena lortzen dudaren arabera.

Baduzu markatuta duzun lasterketa bat, guztiaren gainetik bertan parte hartu nahiko zenukeena?

Nire betiko ametsa Euskal Herriko Itzulian ibiltzea da, baino nik uste aurtun ez dela momentua. Maila horretako karrera batean aritzeko oso prestatuta egon beharra dago. Orain ez da momentua, nik hori ere badakit, eta ez dut Itzulia eskatuko, baina hurrengo urtean jarrita Itzulira joan nahiko nuke. Aurtun ez daukat lasterketa bat markatuta. Kategorian nire lekua bilatzea, sendotzea eta progresio horretan jarraitzea, hori da helburua. Baina nire ametsetako lasterketa Itzulia da.

Zein giro duzue Rural Kutxa-Seguros RGA taldean? Txirrindulari bakoitza punta batekoa zaretenez, harremana sortzea kosta egiten da? Batzuk Andaluziakoak, besteak Euskal Herrikoak... denetatik dago. Bakoitzak bere perspektiba eta bere pentsaerak ditu, baina lasterketetan eta taldean giro ona dago. Rural Kutxan azkenean familia txiki bat gara, gurea ez da talde hain handia. Urte osoa pasatzen dugu taldekide berdinekin eta azkenean lagunak egiten gara denak. Denboraldia



Josu Etxeberria, ezkerrean, aurten afizionatuetara igo den Martxel Etxeberria anaiarekin. RURAL KUTXA

"Profesionaletan progresioan jarraitzea da helburua"

JOSU ETXEBERRIA AZPILIKUETA TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA PROFESIONALETAN AHAL DEN GORENERA IRISTEA DA BERE NAHIA. BIDE HORRETAN PAUSOAK ONGI EMATEN ZENTRATZEN ARI DA

hasten denean leku batetik bestera goaz etengabe. Taldekideekin ia nire lagunekin eta etxekoekin baino egun gehiago pasatzen ditut. Horregatik, azkenean normala da taldekideak lagunak izatea. Giro ona izateak laguntzen du, bestela ezinezkoa izango litzateke, oso gogorra.

Lasterketetan logelan norekin egon zuek erabakitzen duzue?

Ez, taldeak zehazten du norekin egon behar dugun. Lasterketa eta kontzentrazio guztietan bikoteak aldatzen saiatzen dira,

guztiak guztiekin egoteko eta guztiak elkar ezagutzeko.

Rural Kutxa-Seguros RGA taldearen helburu nagusia aurten ere Vueltan egoteko gonbidapena jasotzea izango da. Taldean baikor dira?

"UCI WORLD TOUR MAILAKO LASTERKETA BATEAN ALDEA NABARITZEN DA. BESTE PAUSO BAT DA"

Urtero lehia hori dugu, aurreko urtetan agian pixka bat gehiago, baina taldearen helburu nagusia Vueltara joan ahal izatea. Tentsio hori badago, baina uste dut presioa ongi ari garela kudeatzen. Lana ongi ari gara egiten, hori badakigu, eta ateratzen dena ateratzen dela lasaitasun hori dugu. Ahalik eta hobekien egiten saiatuko gara Vueltaren gonbidapena lortu ahal izateko.

UCI World Tour taldeekin lehiatzen duzunean hor ere beste salto bat dagoela nabaritzen al duzu?

UCI World Tour mailako lasterketa batean sartzen zarenean alde nabaritzen da, nahi eta ez. Beste pauso bat. Bigarren mailako lasterketa batean ari garenean, ez da hain kontrolatuta egoten, gure artean lehiatzen gara UCI Pro Team mailako edo kontinental mailako taldeak, eta hor hobe moldatzen gara. Baina UCI World Tour mailako talderen bat etortzen denean, beste pauso bat nabaritzen da. Gehienbat oso azkar joaten garenean nabaritzen dut. Beraz, esan daiteke profesional mailan zenbait kategori txiki badaudela.

Gustatuko litzaizuke kategorია txiki horietan goraino heltzea?

Bai, jakina (kar, kar). Orain zaila ikusten dut, baina hori da helburua, ahal den gorenera iristea. Bide horretan pausoak ongi ematen zentratzen ari naiz, progresio bat izaten. Benetan pauso hori eman nahi baduzu, konstantea bazara, eta progresioa baduzu, nik uste lortu daitekeela. Epe motzean ez, baina epe luzerako hori da ametsa, ahal den gorenera iristea.

Iparraldean txirrindulariek profesionaletara gazteegi salto egiten ote duten, txirrindularitzan asko hitz egiten da horretaz. Hori ez dela ona diote batzuk, baietz besteek... nola ikusten duzu?

Bakoitzak ahal den azkarren lortu nahi ditu helburuak, baina batzuk 20 urterekin lortzen dute bere onenera iristea eta beste batzuk 30 urterekin. Iparraldean azkarrago iristen dira profesionaletara, baina egia da askok euren karrera azkarrago bukatzen dutela. Pogacar edo Evenepoel bezalako fenomenoak daude, Pogacarren kasuan 22 urterekin, jada Tourra irabazten daudela. Baina hori albo batera utzita, uste dut bakoitzak gure denbora dugula, batzuk lehenago iristen direla euren onenera eta beste batzuk beranduago. Hori ez da ez ona ez txarra.

Sakana Group-Aralar taldean zure taldekide izandako Igor Arrietak aurten profesional mailara salto egin du Kern Pharma taldearekin. Mallorcako Challengean elkarrekin aritu zineten. Nola ikusten duzu?

"IGOR ARRIETA GORA EGITEN IKUSTEA POLITA IZANGO DA. BESTE SAKANDAR BAT, POZTEKOA"

Challengeko lasterketa batean elkarrekin aritu ginen. Igor bere lehendabiziko lasterketak oso ongi kudeatzen ari da. Denboraldi hasieran gaude, baina Igorrek lana ongi egiten badu eta horrela jarraitzen badu berak nahi duen lekura iritsiko dela uste dut. Txirrindulari oso ona da, kalitate handikoa eta progresio tarte nabaria duena. Igor gora egiten ikustea polita izango da, eta tropelean beste sakandar bat ikusteagatik pozik nago.

Rural Kutxa-Alea afizionatuen taldean, atzetik Martxel anai dator-kizu. Aurten debutatuko du amateur mailan, Jon Erdoziarekin batera, eta Mikel Olaetxea taldekide ohia ere izango dute taldekide.

Anaia ni aurretik pasatutako tokietatik ari da orain pasatzen. Aholku onak ematen saiatzen naiz, ahal dudanean laguntzen. Ni amateurrean hasi nintzanean gogor egin zitzaidan baita ere. Normala da, kategoría berri bat delako, baina nik uste berak nahi badu, nahi duenera arte iritsiko dela. Bakoitzak bere lan egiteko modua dauka, eta ni ahal den aholku hobereak ematen saiatuko naiz. Ea berak ere profesionaletara pasatzea lortzen duen. **Bi anaiak txirrindulariak zarete eta aita ere oso zalea da. Zuenean beti duzue txirrindularitza hizpide?**

Nire aita oso-oso zalea da. Berarekin bakarrik bagaude nahitaez txirrindularitzaren gaia ateratzen da, baina ni saiatzen naiz ahal den gehien gaiaz deskonektatzen. Bazkari batean guztiak gaudenean eta txirrindularitza gaia ateratzen bada, gai hori aldatzeko eskatzen dut. Egunerokoan etengabe horretaz jardutea ez zait gustatzen, bestela buruak ez du atsedean hartzen, eta egun osoa zaude txirrindularitzari bueltak ematen. Bizikletan entrenamendu onak egitea eta hobetzea gustatzen zait, baina bizikleta uzten dudanean atsedean hartu beharra dago. Denbora guztian txirrindularitza buruz ari bazara, ez duzu %100ean deskantsatzen eta deskonektatzea behar da.

Zein da hurrengo lasterketa?

Martxoaren 13an Portugalen jokatuiko den Classica da Arrabida. Ordura arte entrenatzen ibiliko naiz buru-belarri.

Denboraldian zorterik onena opa dizugu, hori ere beharrezkoa baita. Bai, hala da. Eskerrik asko. Lana ongi egin dezakezu, baina zorte txarra edo ona izatea ez dago gure esku, bizitzako kontua da.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 11

ZIORDIA Iñigo Aritza
ikastolaren 50. urteurrena:
Miriam Mendoza Etxabe ipuin
kontalariaren **Amonaren**
kutxan ipuinak dantzan ipuin
kontaketa.
17:30ean, liburutegian.

ALTSASU Gazte agenda: **Pizza**
eguna.
18:00etan, Intxostiapunta gazte
gunean.

BAKAIKU Goiener eta Izarkom
Euskal Herriko energia eta
telekomunikazio alternatiben
aurkezpena.
18:30ean, udaletxean.

LARUNBATA 12

IRURTZUN Ski irteera: **Belagua-
Arette**.
07:00etan, autobus geltokia.

IRURTZUN Pentsio Sistema
Publikoaren aldeko
kontzentrazioa pentsiodunen
erakundeekin bat eginez.
11:00etan, plazan.

BAKAIKU Osasun arreta duin
eta publiko baten aldeko giza
katea.
12:00etan, plazan.

ALTSASU Gazte agenda: **Ping
pong txapelketa**.
18:00etan, Intxostiapunta gazte
gunean.

ALTSASU Bulego taldearen
kontzertua.
Sarrerak agortuta.
19:30ean, lortia kultur gunean.

IGANDEA 13

ALTSASU Altsasuko
Mendigoizaleak taldearen
irteera: **Mikeleteak – Aitzgorri –
Urbia – Pilpil**.
08:00etan, egoitzan.

ALTSASU Torturaren aurkako
eguna: **Sakanan 149+
#aztnugal**. **Iluntasunetik
argitasunera** elkarretaratzea.
13:00etan, udaletxearen aurrean.

IRURTZUN Ojos Violeta taldearen
kontzertua.
19:00etan, Pikuxarren.

ALTSASU **Euskal preso
eta iheslariak etxera**
elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 14

ALTSASU Pentsio duinen aldeko
elkarretaratzea.
12:00etan, udaletxearen aurrean.

SATRUSTEGI Arakilgo emakume
taldea.
18:00etan, elkartean.

ASTEARTEA 15

URDIAN Zer egin haurrak
euskaraz (gehiago) irakur
dezaten? Hitzaldi-lantegia.
Hizlaria: Intza Alkain.
Sakanako Mankomunitateak
antolatuta.
17:00etatik 19:00etara, auzoan.

ALTSASU Irakurketa kluba
gaztelaniaz: **Birgit Vanderbeken
Mejillones para cenar** liburua

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

El callejón de las almas perdidas
gaurkotasunezko filmaren
emanaldia
Ostirala 11: 19:00
Igandea 13: 19:30

No somos nada gaurkotasunezko
filmaren emanaldia
Osteguna 17: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

Una librería en París zineforum
filmaren emanaldia
Igandea 13: 19:30

El pacto zineforum filmaren
emanaldia
Osteguna 17: 19:00

mintzagai.

18:00etan, lortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 16

ALTSASU Irakurketa kluba
gaztelaniaz: **Birgit Vanderbeken
Mejillones para cenar** liburua
mintzagai.

18:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU **Pentsionisten
mugimenduak lau urte**.
Jon Fano eta Andrea Uña
Bizkaiko pentsiodunen
mugimenduko kideen
hitzaldia.

Sakanako Pentsiodun
mugimenduak antolatuta.
18:30ean, lortia kultur gunean.

IRURTZUN Irakurle taldea:
**Juanjo Olasagarreren Ezinezko
Maletak** mintzagai.
19:00etan, Pikuxarren.

OSTEGUNA 17

ETXARRI ARANATZ Andrekunde.
18:00etan, plazan.



ARBIZU Argia ematen duten emakumeak. Noor erakusketa birtuala.
Otsailaren 14ra arte. Liburutegian.




OLAZTI Etxepare Saria irabazi duten albumen azalen erakusketa.
Nafarroako Gobernuko euskara zerbitzuek antolatuta.
Otsailaren 14tik martxoaren 4ra. Liburutegian.




ALTSASU **Begirada ezberdin bat** Unai Beroiz fotokazetariaren
argazki erakusketa.
Pobreziaren eta bazterkeriaren kontrako Nafarroako sareak eta Sakanako
Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak antolatuta.
Otsailaren 20ra arte. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara.
lortia kultur guneko erakusketa aretoa.

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 11




Larunbata, 12



Igandea, 13



Astelehena, 14



ESKELA



Elena Echavarri Albiztur

Izan eta erakutsi diguzunagatik mila esker,
ez zaitugu ahaztuko

Etxekoak

OROIGARRIA

Joxe Katarain Apaolaza

I. urteurrena

Urte berriarekin bat
Ardiak erditu dira
Badakit pozik zaudela
Zauden tokitik begira
Nahi gabe azaltzen zara
Oroitzapenen erdira
Igarotzen geranean
Negutik udaberrira
Dunbak entzungo dituzu
Berriandik Aizkorriara

Etxekoak

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Uharte Arakilgo Udalak langabetua kontratatuko du: 51 urtetik gorako eta Nafar-Lansare enplegu zerbitzuan izena emana duen langabetu bat, sei hilabeterako, kontratatu nahi du udal eraikin, bide, kale garbiketa lanak nola zerbitzu anitzeko langileei laguntza lanak egiteko. Lanpostu horretan interesa duenak Altsasun dagoen Nafarroako Lan Zerbitzuko bulegoan ema behar du izena 2022ko otsailaren 18ko 12:00ak baino lehen.

Bertso Udalekuetarako hezitzaileen izen ematea: Otsailaren 7tik 21era arte zabalik egongo da Bertsozale Elkartearen webgunean. Begiraleak, sukaldariak, zuzendariak eta begirale praktikak egiteko aukera dago, ardura bakoitzak bere izen-emate orria izango du. Amaiurren, Irañetan, Larraulen eta Zuhatzan izango dira egonaldiak, uztailean gauzatuko dira. Informazio gehiago www.bertsozale.eus web orrian.

Salto! Gazte topaketan begiraleak eta sukaldariak behar dira: Interesa dutenek beraien curriculum martxoaren 4a baino lehen bidali beharko arnasgunea@uema.eus e-posta helbidera. Apirilaren 15erako hautatuei erabakia jakinaraziko zaie. UEMA-k kontratatuko ditu langile hauek.

IKASTAROA

Irurtzunen Spinning ikastaroak: Ikasturteko bigarren lauhileko honetan izena eman nahi baduzu begiralearekin berretsi beharko duzu eskola ordutegietan. Ordutegia astelehene eta asteazkenetan 9:30ean, 19:00etan edo 20:00etan, edo astearte eta ostegunetan 19:30ean edo 20:30ean. Otsailaren 14tik maiatzaren 31ra ate izango dira klaseak. Astean bi egun 110 euro astean saio bat 70 euro. Matrikularen diru kopurua Sedenaren kontu zbkian sartu behar da: ES30 2100 9141 1902 0007 161.

OHARRAK

Uharteko Arakilgo Pausoka haur eskola: Otsailaren 14tik 18ra plazen erreserba eginen da.

Kubarekin elkartasuna kanpaina berria: MESC (Kubarekin Elkartasuna Estatu mailako Mugimendua) en barruan dauden erakundeek abiatu duten "Tona elkartasun" kanpainaren helburua Kubara kontedoretan behar dituzten materialak bidaltzea du helburu. 2022ko otsailaren 7an 60 urte bete dira Kubaren aurkako Blokeoa "legalki" hasi zela. Materiala erosi ahal izateko zure aportazioa egin nahi baduzu MESC-en barruan gertuen dugun Euskadi-Kuba erakundearen kontu korrantean egin dezakezu: ES35 3035 0134 43 1340059271 (Caja Laboral). "Campaña toneladas" eta zure izen abizenak zehaztu diru

sarrera egiten duzunean. Milesker.

Siriara bidaltzeko mantak bilketa: Gobernuz kanpoko Ayuda Contenedores erakundeak Siriako Olanazko dendetan bizi diren siriarendako mantak biltzen hasi da. Otsaileko asteazkenetan, 10:00etatik 13:00erara, mantak jasoko dituzte Altsasuko Frontoi zehar bideko 14. zenbakiko bajeran. Etxarri Aranzaten, otsaileko astelehene guztietan, boluntarioen gunean, Kultur etxeko atzoko alboan, 17:00etatik 18:30ra.

Salto! Gazte topaketan izena emateko epea zabalik: Sakanan Arbizu eta Etxarri dira UEMA-ko kide, beraz, herri hauetako 14 - 18 (2044 eta 2007 artean jaiotakoak) urte bitarteko gazteek izena eman ahaliko dute martxoaren 31ra arte. Aisialdiarekin eta euskal kulturarekin lotutako egitarau erakargarriarekin, gazteak sentsibilizatu eta ahalduz kolektiborako pausoa eman nahi da. Prezioa 95 euro. Izena emateko 943 816 699 tfnora deitu edo hezketza@uema.eus helbidera idatzi. Informazio gehiago www.uema.eus web orrian.

iragarki@guaxe.eus

www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

- **Naroa Nogueira Vilariño**, otsailaren 1ean Altsasun
- **Heren Ramos Bobillo**, otsailaren 1ean Altsasun

HERIOTZAK

- **Fermina Ansa Otermin**, otsailaren 4an Irañetan
- **Lucas Mozo Marin**, otsailaren 6an Unanun
- **Manuel Garcia Garrancho**, otsailaren 6an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaxe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€ prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGÜ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

- ☎ 948 19 70 70
- 📧 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

Etxarri Aranatzeko sortutako ipuina aurkeztu du Arrietak

Udalbiltzaren 'Geuretik sortuak' ekimenean sortutako lana 'Hamazazpigarrenean aidanez' bilduman jaso dute

ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranatzeko egonaldian jasotakoarekin Estekak sortze lana egin zuen Yolanda Arrieta idazleak. Geuretik sortuak Udalbiltzak sustatutako kultur ekimenaren barruan parte hartu duten idazleek sortutako idazlanekin batera Hamazazpigarrenean aidanez bilduma osatu dute, eta aurreko otsailaren 3an Yolanda Arrietak Etxarri Aranatzeko liburua aurkeztu zuen.

Yolanda Arrieta bidaiari bat bezala iritsi zen Etxarri Aranatzera, bertan ikusten zuen guztiaz jabetzeko. Herrian aurkitutakoarekin *Estekak* ipuina idatzi zuen. Izenburu irekia da, ez zekiela zer aurkituko zuen. Arrietaren lana ez ezik, *Hamazazpigarrenean aidanez* Geuretik sortuak ekimenean parte hartu duten hamasei idazleen lanak jasotzen ditu.



Liburuaren aurkezpena. @TRONKESEA

Bestetik, Yolanda Arrieta otsailaren 22an Etxarri Aranatzera itzuliko da Nano ipuinak egiten ikasteko lantegia eskaintzera. Bi saio izanen dira: 09:30etik 11:00etara eta 19:00etatik 20:30era. Izena ematea: Itsasi euskalgegia eta Sakanako Mankomunitatean.



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO MARIN

Udaberria bertan da

Otsaila iritsi da eta horrekin batera eguna luzeagoa da, eguzki ordu gehiagoz goza dezakegu, baina hotzak jarraitzen du eta ezin dugu oraindik udaberriko arropa jantzi. Bilduma berriko arropa tentagarria izan arren, freno jarri behar da, eta ikusi neguko zer arropa erabili dezakegun udaberrian.

• **Puntuzko jertsea:** Egun horietan erabiltzeko aproposa da, ez hotz ez bero handirik egiten ez duenean. Blusa blusa gisa eramango delako, hau da, ezer gabe behean, beroak jota ez hiltzeko. Eskotea badu, hobe!

• **Bota altuak:** Midi soinekoekin edo soineko guztiz luzeekin konbinatu behar dira, ahal bada lorezkoak izan behar dute udaberriko ibi bat lortzeko, baina estanpatu

geometrikoek edo print animalienak ere primeran funtzionatzen dute.

• **Kuloteak:** Inoiz baino indartsuago, baina orain cowboy botekin eraman beharrean, combo irabazlea zapatillak eta chunky dun takoiak izango dira.

• **Denim jacket:** Oversized bertsioari atsedean eman eta txamarra motzari edo boleroari ongi etorria emateko unea da. Erabili denim look guztirako, soineko batekin edo mini batekin. Arrakasta izango duzu!

• **Cowboy botak:** Botak udazken eta negukoak baino gehiago badira ere, cowboy estiloa must bat da udaberri honetan, beraz, aurreko urtaroko jantziak birziklatu ahal izango dituzu; orain, soineko super motzak, bermudak edo shortak izango dira osagarririk onena.

• **Blazer koloreduna:** ahaztu oinarrizkoa kolore beltzean, udaberria zure blazerrak tonu dardartietan ateratzeko da, pasteletan edo neoian, apustu irabazlea da.

Euskarazko literatura sustatzeko ekimena

Mendialdeko euskara zerbitzuek, Sakanako Mankomunitateak barne, 'Literatura geraldia' ekimena antolatu dute, besteak beste, euskaraz irakurzaletasuna ohitura zabaltzeko eta sustatzeko. Sakanan bi solasaldi izanen dira.

SAKANA

Baztango Udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak eta Sakanako Mankomunitateak elkarlanean Literatur Geldialdia ekimena antolatu dute. Proposamenaren helburu nagusiak euskaraz irakurtzeko ohitura eta zaletasuna zabaltzea, herritarren euskarazko kultur kontsumoa indartzea, euskal liburugintza indartzea, liburutegi publikoen erabilera bultzatzea eta esperientzia literarioa elkarbanatzea dira.

Proiektuaren izenak dioen bezala, zenbait idazle geldialdiak eginen dituzte Baztango, Bortzirietako, Nafarroako Iparraldeko eta Sakanako herritan. Hiru ekimen desberdin eginen dituzte: Liburu baten inguruko literatura solasaldiak, lantegiak eta irakurraldi musikatuak. Aiora Jakak irekiko du Literatur Geldialdiak ekimena otsailaren 19an, 11:00etan, Etxalekun. Jakak *Nirliit* liburuaren inguruko literatura solasaldia eginen du, eta bigarren geldialdian Sakanara iritsiko da; Irurtzango Pikuxarren egonen da martxoaren 10ean, 18:00etan. Martxoaren 26an, 11:00etan, Lesakako Arrano elkarrean izanen da Jaka. *Nirliit*-en inguruko laugarren solasaldia



Mendialdeko euskara zerbitzuen 'Literatura Geraldia' ekimenaren irudia.

apirilaren 28an, 19:00etan, izanen da, Erratzuko Lixutegian.

Irati Goikoetxea idazleak *Herriak ez du barkatuko* liburuaz ariko da Larraintzargo Bentan, apirilaren 20an, 18:00etan, eta apirilaren 29an, 18:30ean, Lekunberriko liburutegian. Ekimenak Sakanan eginen duen bigarren bisita Nerea Loiolarena izanen da, apirilaren 21ean, 18:00etan, Irurtzango Pikuxarren. *Epizentrotroa* liburuaren inguruko solasaldia izanen da. Apirilaren 28an, 17:30ean, Loiola Arantzako liburutegian izanen da. Bestetik,

Mikel Antza *Arroz Urez* liburuaz ariko da Berako Liburutegian, apirilaren 22an, 19:00etan.

Literatur Geldialdiak ekimenaren barruan ere Ibon Egañak *Nola iruzkindu liburu bat?* lantegia eskainiko du apirilaren 27an eta urriaren 19an, 18:30ean, Leitzako liburutegian eta Elizondoko Arizkunenean, hurrenez hurren. Apirilaren 23an, Liburuaren egunean, 19:00etan, Aritz Galarragaren eta Ibon RGren *Gogoan dut* irakurraldi musikatu izanen da Lesakako Harriondoan.

Ikastolaren urteurrenerako, ipuin kontalaria Ziordian

Iñigo Aritza ikastolak 50 urte betetzen ditu, eta ospatzeko zenbait kultur ekimen antolatzen ari dira

ZIORDIA

Iñigo Aritza Ikastolaren 50. urteurrenaren harira zenbait ekimen antolatzen ari dira Burundán barna. Ilbeltzaren amaieran Basoko sekretuak ipuin kontaketa musikatu izan zen Urdiain-

go zuoan, eta, ondoren, Kukuerrekako kantu taldeak kalejira egin zuen herrian zehar, eta hurrengo emanaldia gaur, otsailak 11, ostirala, 17:30ean, izanen da Ziordiko liburutegian. Miriam Mendoza Etxabek Amonaren



kutxan ipuinak dantzan ipuin kontaketa eginen du.



Victor García Noguera ikuskizun batean. UTZITAKOIA

"Harrapatzen zaituenean, ez duzu ihes egitea nahi"

VICTOR GARCIA NOGUERA DANTZARIA

Ibizara ostalaritzan udako sasoi batera lanera joan zen, eta ordutik ikuskizunaren munduan lan egiten du altsasuarrak

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Altsasuko plazan dantza emanaldiak egitetik, Ibizako disko-teka eta hoteletan ikuskizunak eskaintzera. Victor Garcia Noguera ezustean hasi zen dantzaren eta arte eszenikoen munduan. Ibizara zortea bilatzera joan zen, eta lan "handia" eginez bederatzirte inguru daramatza Balearretako irlan bizitzen. Udan lan sasoi handiena bada ere, neguan ere antzokian musikalak egiten ditu. Urte hau garrantzitsua izanen da altsasuarrarendako: Ibi-

zan gelditu edo Altsasura itzuli erabakiko du.

Nola hasi zinen dantzan?

Altsasun bizi nintzen eta zaletasuna nuen. Jenni Domingorekin, Nora Gonzalorekin eta Joana Troyanorekin talde bat sortu

"LANA BADAGO, ETA ONGI LAN EGITEN BADUZU, AHOZ AHOKOAK LAGUNTZEN DU"

genuen. Momentu horretan telebistan dantza saio oso ospetsu bat zegoen, eta Dantza egitea gustatzen zitzaigunez ere, dantza egitera gelditzen ginen. Koreografiak egiten genituen, baina guretako. Funky edo comercial dance egiten genuen. Garai horretan Txunkaiko festak berreskuratzen hasi ziren, eta bertan dantzatu nahi ote genuen esan ziguten. Jennik eta biok aurrera egin genuen. Prest genituen koreografiak aurkeztu genituen. Gure lehenengo emanaldia hor

izan zen, eta gero beste festa batean, Foru plazan, beste emanaldi bat oholtzaratu genuen. Blanki Torres Gazteriko teknikariak Intxostiapuntan dantza klaseak eskaintzeko kontratu ninduen.

Zein momentutan erabaki zenuen dantza zure ogibidea izatea nahi zenuela?

Egia esan, inoiz. Ibizara udako sasoi egitera etorri nintzen. Altsasun fabrikak ixten ari ziren eta pixka bat larrituta nengoan ikusten nuelako ez nuela lanik aurkituko. Soldadorea naiz, eta bertako lantoki askotan lan egin dut. Momentu horretan herriko beste lagun bat, Maite Hualde, Ibizara sorosle lana egitera etorri zen eta idatzi zidan esanez bertan ostalaritzan lana zegoela eta udako sasoi egin nezakeela eta horrela herrira diru pixka batekin itzuli. Ibizara iritsi nintzen eta lan bila hasi nintzen. Aurkitu nuen zitzaidan lehenengo gauza dantza eskola batean izan zen.

Eta Ibizan gelditu zinen.

Lan hau nahiko behin behinekoa zen. Astean behin joaten nintzen. Ez zen berez lan bat. Utzi behar izan nuen hotel batean zerbitzari hasi nintzelako, eta hortik beste hotel batera pasa nintzen. Ostalaritzan mugitu nintzen, eta gero *show*-aren munduan beste lan profesionalago bat aurkitu nuen, mundu honetako atea ireki zizkidana.

Zein zen lan hori?

Santa Eulaliako pasealekutik nindoala 1980ko hamarkadan inspiratutako musikal baterako kastina eginen zutela kartel bat ikusi nuen. Kastinean izena ematea pentsatu nuen. Hurrengo egunean zen, eta ez nengoan prestatuta, baina aurkeztuko nintzen. Akrobaziak egiten zituen mutil baten bila ari ziren. Kastina desastre bat izan zen. Bi neskekin dantza egin behar nuen, biak dantzariak ziren, eta horietako baten gurasoek dantza eskola bat dute. Oso ongi mugitzen ziren. Nik dantza egiten nuen, baina denborarekin egiten nituen gauzak. Hemen bost zortzi markatzen zituzten, eta aurrera! Bi ordutara deitu ninduten galdezko ea zein akrobazia egiten

"JENDEAK USTE DU ONGI PASA ETA ASKO IRABAZTEN DUGULA, BAINA EZ DA HORRELA"

nituen. Nesken aldean nik maila baxuagoa nuen, baina nigan interesa zutela. Ez nekien hartuko ninduten, eta gainera lan egin behar nuen eta lehenengo entseguetara huts egin nuen. Etxean lan handia egiten nuen, eta nirekin pozik zeuden. Musika-kalean sartu nintzen. Hiru emanaldi egin genituen eta gero bi hilabeteko geldialdia zegoen. Altsasura itzuli nintzen, eta gero Ibizara bueltatu behar izan nintzen beste bi saio egitera.

Mundu horretan aurrera egiteko aukera bat bezala ikusten zenuen?

Momentu horretan ez nuen ikusten lan aukera bat bezala. Ilusioa egiten zidan harrigarria zelako hainbeste pertsonendako aritzea. Musikal horretan hasi nintzen eta, esan daiteke, maitasuna sortu zela. Musikala amaitzerakoan bertan lan egiten zuen mutil batekin gelditzen hasi nintzen. Nik aurretik ez nion arreta jarri, baina pixkanaka hasi ginen eta konturatzerako Ibizan nengoan, udako eta neguko ikuskizunak egiten. Dagoeneko ez gaude elkarrekin, baina berak ikuskizun enpresa bat du eta ni laguntzaile izatera pasa nintzen: koreografiak sortu, dekorazioak, jantziak... Egia esan, lan handia egin dut zortzi urtez.

Udako lanak izan ohi dira, ezta?

Udan turismo asko dago, eta lan aukera gehiago daude. Enpresa asko daude ikuskizunen munduan lan egiten dutenak. Leku pila batetan behar dituzte dantzariak, performancerrak, akrobatak... Ni mugitzen joan naiz. Lan egiten dudana enpresan ere neguan antzoki batean lan egiten dugu. Ikuskizun pribatu bat egiten dugu, Imbersoko jendearendako. Urte luzez lan egin dugu pandemia etorri arte. Igande honetan lehenengo ikuskizuna eginen dugu. Ongi lan egiten baduzu ahoz ahokoak laguntzen du.

Bizitzeko ematen dizu?

Jendeak uste du dantza egiten dugula, oso ongi pasatzen dugula eta gainera asko irabazten dugula. Ez da horrela. Gainera, entseguak eta sortze lana dago, eta horretan ez duzu ezer irabazten. Askok sufritzen da. Baina behin harrapatzen zaituenean, ez duzu ihes egitea nahi.

Zer egingo duzu etorkizunean?

Egia esan, garai zaila izaten ari da. Urte hau froga moduan hartu dut. Ondoren, erabakiko dut zer egin. Altsasun gauzak errazago ditut.

"Haurrak leihoa begira liluratuta gelditzen dira"

Altsasuko Zumalakarregi plazako kioskoan prentsa eta aldizkariak saltzen zituzten. Txutxeriak ere saldu izan dituzte eta orain, Susana Anguiano Aguado marrazkilaria bere lanak erakusten ditu. Bere estudioa bihurtu nahi du ere bai

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Noiz hasi zinen marrazten?

Txikitatik dator. Leku guztietan marrazten nuen. Askok gustatzen zitzaidan. Oroitzapen asko ditut. Eskolan ez nintzen ikasle ona, baina marrazketan ona nintzen. Askok betetzen ninduen. Arte eta ogibide eskolan, dekorazioa ikasi nuen. Nire amonak kioskoan tebeoak saltzen zituen. Gogoan dut hor, iskinean, nire amona saltzen ari zen bitartean eta arratsaldetan konpainia egitera etortzen nintzenez, tebeoak irakurtzen egoten nintzela. Irudiek eta ilustrazioek betidanik atentzioa deitu didate.

2 Marrazten jarraitu duzu?

Egia esan, duela gutxi hasi nintzen berriz. Etxean denbora neukan, familian gaixotasunak gertatzen dira eta barruan dagoe-na ateratzeko modu bat da. Marrazketak izugarri lagundu zidan. Lagun bati esker ilustrazio taillerretara joaten hasi nintzen, besteak beste, Iratxe Lopez de Munain edo Noemí Villamuza ilustratzaileekin. Bertan asko inspiratzen nauen jendea ezagutu nuen, pikatu nintzen, eta jarraitu nuen. Ikaskide baten aholkua jarraitu



Susana Anguiano Aguado marrazkilaria.

nuen; marrazketa blok bat erosteko esan zidan, eta egunero pixka bat marrazteko.

3 Zertan inspiratzen zara? Zer marrazten duzu?

Bereziki, animaliak egiten ditut. Gehienak animaliak dira. Pertsonaiak ere sortzen ditut. Marrazketa gustatzen zait, margotzea ez. Marrazkilaria naiz. Bozetoak egitea asko gustatzen zait, eta marraz-

keta azkarra miresten dut. Margotu ere egiten dut, dena jartzea da. Baina ez dut nahiko pazientziarik. Margotzen duen jendea asko baloratzen dut, baina ez da niretako. Niri arkatza gustatzen zait.

4 Zumalakarregiko kioskoan jarri dituzu zure lanak. Zergatik?

Kioskoa familia negozio bat izan zen. Orain itxita zegoen, eta nire izeba, nire lanaren lehenengo zalea denez, hemen erakustea proposatu zidan. Hasieran lotsa ematen zidan. Baina azkenean animatu nintzen. Zergatik ez? Orain ezin dut oso hotz delako, baina aurreago estudio txiki bat jarri nahi dut hemen. Gehien gustatzen zaidana haurrak leihoan itsatsita gelditzen direnean da. Liluratuta begiratzen dute. Liburuak dekorazio moduan jarri ditut. Haurrak fijatzen dira, eta niri gustatzen zait.

5 Nola erabakitzen duzu zer erakutsi?

Gordeta ditudan lanak jartzen ditut eta bi hilabetero aldatzen ditut. Pixka bat denetarik jartzen dut: pertsonaiak, animaliak, collageak, hauda, marrazkiak koloretako paperekin nahasita... Normalean egiten dudana da. Osodenbora gutxi daramat. Hau bigarren txanda da. Agian egunen batean egin berri dudan marrazki bat gustatzen zait, eta beste batengatik aldatzen dut.

6 Kanpotik ikus daiteke, eta barrutik?

Barrutik ez. Jendearendako entretanimendu bat izatea nahi dut, besterik gabe. Galeria txiki bat; pertsonala.

7 Lanak eros daitezke?

Bai. Jendeak eros ditzake, eta baten bat saldu dut. Sare sozialen

bidez ere kolaborazioak egin ditut. Jendeak haien poemetan erabiltzeko baimena eskatzen dit edo istorioak irudikatzen eta baietz esaten diet. Zure lana erakustea asko asebetetzen zaitu.

8 Sortzen jarraitzen duzu?

Hori ez da inoiz amaitzen. Nire estilora fidela naiz. Ez dira marrazki imaginatiboak edo fantastikoak. Normaltasunetik aldetzen badira paperei esker da, hau da, collage-i esker.

9 Zure garapena nabaritu duzu?

Bai. Block-a erosteko eta egunero pixka bat praktikatzeko esan zidan lagun horri esker asko hobetu dut. Sudurrak, begiak eta abarrak askoz hobe ateratzen dira.

10 Zeure buruari erronkak jartzten dizkiozu?

Egunero marrazkiak egitea. Batzuetan etxera iristen zara eta ez duzu marrazteko gogorik, baina zertxobait egiten duzu. Saretan batzuetan erronkak egoten dira ere: tintarekin egiteko, arkatzarekin egiteko... Haiek hitz bat jartzen dute, eta zuk horri buruzko zerbait marraztu behar duzu. Horietan parte hartzen dute ere. Gustatzen zait. Askok laguntzen dute. Horretarako sareak oso ongi daude.

11 Beraz, egunero marrazten duzu?

Saiatzen naiz. Egunero, egunero... Lana ere hor dago. Denboraldiak daude. 2016an tailerrekin hasi nintzen eta hasieran egunero egiten nuen zerbait. Askotan egindakoa ez du balio, baina behintzat praktikatu duzu. Kontantea izan naiz, edo saiatu naiz.

2022-2023

matrikulazio kanpaina

Beharrezko material guztiarekin lagunduko dizuegu
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gk
 DISEINUA ETA
 KOMUNIKAZIOA

f
 619 821 436
 info@gkomunikazioa.eus
 www.gkomunikazioa.eus
 Foru plaza, 23-1. Altsasu